

GUaiXE.net



Nazabalek Urrezko Aizkorako finala du jokoan



kirola >> 13

Lakuntzako Elai Alai dantzataldeak bere eguna ospatuko du igandean, Korpus Eguneko festa ekitaldiekin batera. Arratsaldean, Alkate Dantza



kultura >> 15



Aldaketarako indarrak biltzen

>> 9

Hondakin bilketarako materialaren banaketa hasiko du Mank-ek

Astelehenean hasiko da. Irurtzunen, bestalde, 6 hilabete atzeratuko da ezarpena eta informazioa zabalduko dute

>> 5

Urdiain sekuoiarik gabe

Herenegun moztu zuen Udalak. Momentuz bere tokia hutsik geldituko da

>> 7



Ziordiak badu aurrekontua

>> 7

Inasan, albisteen zain

>> 6

Sartu BLOG BERRIRA

guaixekomunikazioa.blogspot.com.es/

948 562 107

Guaixe komunikazioa: Diseinua eta inprenta



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa

Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu

Telf. : 948 468 559

info@lehalsaventanas.com

www.lehalsaventanas.com



Ane
ZORIONAK printzes!! Bi-kain pasa dezazula zure 6. urte egunean!! Muxu asko eta besarkada handi bat Josebaren, aitaren eta amaren partez.



Hodei Senar
Rekalde
ZORIONAK!!! Ze haundia zauden dagoeneko, 4 urte! Ondo pasa zure egunean. Muxu bat famili guztien partez.



Amaia eta Lexuri Petriati
ZORIONAK BIKOTE!! Ea konturatu gabe 8 urteko neskatu pinpirin batzuk egin zarete. Muxu handi bat guztien partetik.



Sarabe
Begiristain Garcia
Ez aldatu sekula. Jarraitu orain bezain alai. ZORIONAK SARABE!!!!



Olaia Garzandiara
Iraurgi
ZORIONAK PITUX!!! Hiru urte beteko ttzu igendien, nola haunditzen ai zan... Muxu haundi bet etxeke guztien partez.



Alaine Senar
Ormazabal
ZORIONAK Alaine!! 2 urte dituzula... segi orain bezain alai eta salsera, muxu haundi bat denon partetik!



Ugaitz Ulaier
ZORIONAK gu trasto politorri!!! Muxu goxo-goxuat. Aitatzko, amatxo eta Alaitz.



Ugaitz Ulaier
Hiru urte ze haundiye!!! ZORIONAK!!! Mua, mua, muuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuu!!! Attu-na, amiñak, izebak - osabak eta lehengusuben partetik.



Peru Goikoetxea
Irisarri
Astelenien 8 urte gure etxe-ko mutilak! ZORIONAK TA URTE ASKOTAKO familia guztien partetik.



Ekhiñe
ZORIONAK preziosa!! 13 urte dagoeneko!! Ze moza!! Muxu handi bat etxeke partez.



Ekhiñe
ZORIONAK guapisi-ma!! Besarkada handi bat. Ondo pasa. Amiña.



Ekhiñe
Gora gu ta gutarrok!! Argi ibili. ZORIONAK eta muxu handi handi bat etxeke partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

maiatzak-garagarrilak 31-6

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Udal musika eskolako kantu ikasleak. Garagarrilaren 1ean larunbatean, 19:45 aldera, Etxarri Aranazko Andra Mari ermitan.

Los del Rayo+Green Warriors+ Txen eta Soul Prey DJ-ak . Garagarrilaren 1ean, larunbatean, 23:00etatik aurrera Altsasuko Txunkai auzoan.

Iparfolk. Garagarrilaren 2an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Dantza

Elai alai eguna. Garagarrilaren 1ean, larunbatean, 12:00etatik aurrera

Lakuntzan.

Txirrindulari irteerak

Iturgioengo Trinitatea. Garagarrilaren 2an, domekan, 7:30ean Altsasu Zumalakarregi plazatik. **Burunda txirrindulari taldeko mendi bizikleta saila.**

Mendi irteera

Senosiain-Lizarraga. Garagarrilaren 2an, igandean, Irurtzongo Iratxo elkarte.

Bardoitza eguna. Garagarrilaren 2an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak.

Elhorrietako lepoa (Izpegi-Baztan). Garagarrilaren 2an, igandean, 9:00etan Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolatik. Iparraldeko lagunekin mendira, egun pasa.

Erakusketak

Harley Davidson motorrak. Garagarrilaren 1ean, larunbatean, 11:30etik 14:00etara Altsasuko Txunkai auzoan.

Itziar Nazabal arte eskola. Garagarrilaren 16ra arte Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Gatazkak, zigorrak eta erregresioak. Garagarrilaren 4an, asteartean, 17:00etan Arbizuko Kattuka haur eskolan. **Hizlaria:** Nerea Mendizabal, psikopedagogo.

Tailerrak

Auzo-konposta egiteko ikastaroa.

Maiatzaren 31n, ostiralean, 11:00etan eta 19:00etan Etxarri Aranazko eta Olatzagutiko kultur etxeetan. Garagarrilaren 3an, astelehenean, 11:00etan eta 19:00etan Uharteko Arakilgo udaletxean eta 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Garagarrilaren 4an, asteartean, 11:00etan eta 19:00etan Lakuntzako udaletxean. Garagarrilaren 5ean, asteazkenean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean eta 11:00etan eta 19:00etan Ziordiko udaletxean. Garagarrilaren 6an, ostegunean, 11:00etan eta 19:00etan Ziordiko udaletxean.

Adimen emozionalaren bidezko heziketa. Maiatzaren 31n, ostiralean, 9:30ean Olatzagutiko Akelarre ludoetean.

Bestelakoak

II. Txakur erakustaldia. Garagarrilaren 2an, domekan, 9:30etik aurrera Altsasuko kaputxinoen egoitzan. **Bocalan-Biak bat fundazioa.**

Deialdiak

Berritu zure konpromisoa. Maiatzaren 31n, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Foru plazan. **EHE.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 31n, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Errausketak hil egiten du. Garagarrilaren 1ean, larunbatean, 12:00etan Iruñeko Parlamentuaren aurrean. **3MB.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarrilaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garagarrilaren 3an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda
Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, greba, Elai Alai eguna, Enneco, Euskal jaia...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

Marian Mendiola Barandalla

Askagintzako kidea

Testua: Eneida Carreño Mundiñano eta Alfredo Alvaro Igoa

Drogen ezagutzan murgilduz. Oinarrizko kontzeptuak liburua argitaratu du etxarriarrak. Psikologoa eta 1988tik Askagintzako kide, erakundeko prebentzio-materialen prestakuntzan eta ikerketan arduraduna da. Drogen gaia hartuta hainbat dibulgazio lan egin ditu etxarriarrak. Berea orain arte "ibilbidea ixila" izan da, baina erronka onartu eta **Beleixe Irratian (FM 107,3)** izan zen.

Nondik sortu da liburua?

Lehen lana 1998koa da. Ikastetxetan Askagintzak ikastaro asko ematen zituen. Gurasoei ere. Eta euskarazko materialaren eskara handia zegoen. Garai hartan, ikasketa prozesua bukatzen ari nintzen eta niri lan hau asko gustatzen zitzaidanez nik hartu nuen ardura: Askagintzako materialen prestakuntza, guraso, ikasle, gazte eta horiendako, eta euskaraz. Behar bada lan gehiena Gipuzkoa aldean egiten genuen eta eskaera handia zen. Gure lehen lanak itzulpen hutsak ziren. Ezzireneuskaraz sortuak. Horrek ere arazak sortzen zituen, sorkuntza ez zelako euskara hutsez egiten.

Eta urratsa eman zenuten.

Droga bakoitzaren efektuen inguruko erakusketa bat egiten hasi ginen. Txukun gelditu zitzaigun eta esan genuen, beno, ba orain argitaratzen hasiko gara. *Drogak larru gorrian, Drogas al desnudo* izan zen gure lehen lana. Gure helburua zen, eta oraindik ikuspuntu horrekin jarraitzen dugu. Badi-rudi drogak onak edo txarrak direla. Larru gorri jartzen garenean gure alderdi onak eta txarrak ikusten dira.

Lehenengoak segida izan zuen...

Aurreko lanean sustantzien abaniko guztia hartu genuen. Gero *Cannabisa larru gorrian* egin genuen. Ikastolen Elkartearekin ere *Primeran pasa, pasatu gabe* lana egin genuen. Gure droga nagusia alkohola denez, *Alkohola larru gorrian* lanari ekin genion. Azken lan honek beste argitalpen batzuk izan ditu, motza-goak.

Zein ikuspunturekin lantzen duzu drogen fenomeno?

Droga kontsumoaren arazoak eta irtenbideak bilatzeko hiruki batean oinarritzen gara. Azterketagiteko hiru erpinetan oinarritzen gara: drogak, pertsona (adina, sexua...) eta testuingurua.

Drogek, berez, bere eragina daukate. Baina droga kontsumoak berak ez digu ezer esaten. Drogak ondo kontsumitu daitezke. Badaude ongi kontsumitzen duten pertsonak. Kontsumoaren ondorio negatiboen mamua baztertu behar dugu. Dena erlatiboa da. Kontsumoarekin batera galdetu behar dugu: pertsona horrek zein testuingurutan kontsumitzen du? Zergatik? Zer bilatzen du kontsumoarekin? Testuinguruaren arabera, droga kontsumoari ematen diogun esanahia bilatu behar dugu.

Drogaren ezagutzan murgilduz liburuaren lehen zatian adin guztietarako edukiak aipatzen dira: polikontsumoak, mendekotasuna, arriskuak, zergatik kontsumitzen dugun, drogekin zer bilatzen dugun (plazerra) eta nahi ez ditugun baina agertzen diren efektuak. Bi ikuspuntu horiek ematen saiatzen gara.

Bigarren zatia nerabe eta gazteendako pentsatuta dago; iritzi kritiko bat, iritzi pertsonal bat bilatzeko, droga kontsumoaren inguruan hausnartzeko, norberak zergatik kontsumitzen duen... Lantzea proposatzen duguna: zergatik ari gara kontsumitzen? Zer bilatzen dugu? Beti behar dugu? Muleta bat izan behar du? Batzuetan, erabaki aske eta autonomia bada, jakinez droga onak badirela, baina bere ondorioak dituztela, sortzen dizkiguten ondorioekin erantzule izan behar dugu. Ikastetxetan lantzeko dago.

Hausnarketarako aproposa da.

Egunerokotasunean gertatzen zaizkien gauzak dira: parrandara ateratzen direnean; lagunen laguntza izaten dute batzuetan, besteetan ez. Parrandangazte bat bakarrik mozkortuta baino gauza gogorragorik ez dago. Mozkortu gaitezke. Batzuetan mozkorrak harrapatzen gaitu. Baina bazter batean mozkor uzten zaituztenean, hori oso gogorra da. Denok egin ditugun gauzak dira. Baina

babes hori, laguntasunarena eta taldearena, nire ustez, gazteen artean hausnartu beharrekoa da.

Zer moduz ikastetxeetan?

Irakasle askok komentatzen dute drogen gaia lantzeak beldurra ematen diela, askotan euren ikasleek eurek baino gehiago dakitelako. Belaunaldi zaharrari informatikarekin gertatzen zaion gauza bera gertatzen zaio: nola hasiko naiz ni horiei erakusten ni baino gehiago dakitenean. Ez da informazio kontua bakarrik: pertsona horren jarrera, pertsona horren ezaugarriak (zergatik kontsumitzen du, zer bilatzen du, nola dago)... Horretan jarriko bagina, nerabea eta gaztea entzuten, ez genuke beldurrik izango.

Droga kontsumoa eta generoa atala sartu duzu liburuan, zergatik?

Emakumea kontrolik gabe, drogen efektupean badago, gaitzesgarriagoa da oraindik. Eginkizun batzuk ditugu, zaintzarena... Badi-rudi rol hori betetzen ez badugu zigortuago gaudela. Lehen mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen zuten, baina parekatzen ari da. Kontsumitzeko erak ezberdinak dira. Batzuek eta besteak legez kanpoko drogak bilatzeko modua ere ezberdina da. Baina oraindik emakumeok zigorgehiago jasotzen ditugu. Parrandaren ondoren gizon askok neska horien inguruan egiten dituzten komentarioak, kontuz! Emakume moduan ari naiz hitz egiten.

Bestalde, antiolitikoak daude. Emakumeen droga bat da. Emakumeekin oso lotuta dagoena. Gaur egun, krisi egoera dela eta, populazio guztira zabaltzen ari da botika horren erabilpena. Gainera, osasun sistemak ezin digu gauza handiagorik eskaini.

Musika, internet, filmak... iturri askotatik jasotzen da drogen informazioa.

Iturri horiek bildu nahi nituen.

Filmetan drogak aipatzen dira: orokorrean edo sustantziak sailkatu ditut. Musikarekin beste hainbeste. Lan polita izanen da kanta ezberdinak aztertzea sortzaile bakoitzak ematen digun ikuspuntua aztertzeko: batzuk erabat debekataileak, mamu guztiak azpimarratzen dituztenak, alderdi onak gorai patzen dituztenak... Berdin filmekin.

Askagintzak zer du esku artean?

Etenaldi luzea izan da. Kolektibo bezala desagertu da. Pertsona solte batzuk gelditu gara eta poliki-poliki, denborak eman duen patxadarekin, sendatze prozesu horretan, ia nondik bilatzen diogun Askagintza-aren beste ikuspuntu bat. Ez dakigu Askagintza izanen den edo beste zerbait. Batez ere emakumeak gaude. Asmo berri batzuen bila gabiltza; droga kontsumoa generoarekin lantzeko.

Liburu honekin batera, orain programa batean gabiltza Oihulari Klonw-eko Virginia Imazekin. Berak bizitzaren harira ipuin batzuk sortu ditu DBHko lehen mailetan lantzeko, baita helduen artean lantzeko ere.

Edozeinek lantzeko asmoa badu, ni prest nago ahal dudana neurrian proposamen ezberdinak jaso eta banaka edo taldean lantzeko.



Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.





Raf Atxuri

astekoa

barrutik
kanpora

Irurtzungo langile harresia

Lerroot idazterakoan Inasa lan-tegiaren geroa airean dago eta aste honetako Guaixe ateratzera-ko agian jendarteak jakinen du zer gertatuko den fabrika honekin eta haren langileekin.

Nolanahi ere langileen jarra-rra tinko eta sendoaz berri izan dugu azkenaldi honetan. Gogoe-ta eta hitzetatik ekintzetara pasatzera behartu dituen jarre-rra. Izan da gure historia hurbi-lean gaztetxea egiteko fabrika

zaharren bat okupatu den herri-rik. Okupatu dira bestelako erai-kinak, herri abandonatuak, lan-du gabeko alorrak. Toki horiei bizia ematea zen beti ere oku-pazioaren xedea.

Oraintsu Inasako langaren ondoan eman dituzte orduak eta egunak langileek eta sostengu emaileek, berriro ere toki hari bizia ematekotan. Bizia eta lana, lana eta bizia. Gurean aspaldis-kotik "Sakanan lan eta bizi" per-

pausa dabil bolo-bolo, eta hitz hutsaletatik harago perpaus haren karietara sakandar asko ari dira jo eta ke kalean eta pla-zetan, batzarretan eta talde era-gileetan. Dema neketsua dugu hau, eta Inasako erronka honen erakusgarri bikaina da. Borro-karen emaitza ez dakidan une honetan gauza bat argi dakit, hots, zerbait lortu bada eginda-ko ahaleginaren ondorio bat izan dela eta ezertxo ere lortu ez bada

ez dela gertatu langileen keme-naren faltaz.

Asko eta asko dira egin beha-rreko urratsak jendarteak kri-siari aurre egingen badio eta gai-na hartuko badio. Inasako lan-gileek duintasun eta borroka lezio eder bat eman dute, elkar-lana eta sakrifizioa batuz, azken aukerak bilatuz. Zorte ona mere-zi du haien ahaleginak, Inasan nahiz Inasatik kanpo edukiko ahal dute!

Elikagaien jasotze kanpaina

Orain dela hilabete batzuk Guai-xe aldizkariaren bidez eskerrak ematen genizkizuen Iruñako Eli-kagai Bankuak Nafarroa osoan antolatutako elikagai bilketa kan-painan parte hartu zenuten guz-tioi. Gaur Guaixeren bidez, berri-ro ere, maiatzaren 31n eta ekai-naren 1ean Iruñako Elikagai Bankuak elikagaien jasotze kan-paina berria antolatu duela kon-tatu nahi dizuegu. Oraingoan ere, Nafarroa osoan izango da eta nola ez Altsasun baita ere. Aza-roan egindako kanpaina Eroski supermerkatuan bakarrik egin zen, oraingoan, berriz, Netto eta Dia supermerkatuetan ere anto-latuko da.

Beti bezala, antolakuntza pro-zesu osoa Elikagai Bankuaren esku dago baina, hala ere, Cari-tasekoek altsasuaren laguntza eskatu dute, gure herrian kan-paina hau aurrera ateratzeko. Gure parte hartzea boluntario-en bidez izango da, hau da, egun horietan pertsona boluntarioek jendeak ematen dituen elika-gaiak jasotzen egingo dute lan. Horretarako, Caritasen lagun-tza jasotzen duten pertsonen gain Altsasuko parrokiaren izena eman dutenez baliatuko gara.

Geratzen zaigun gauza bakarra alde aurretik eskerrak ematea da eta, bestetik, zuen parte-har-tzea eskatzea.

Caritas

hara zer dien

Plazerra irizpide moduan

Sexologoek gure lanean etenga-be erabiltzen dugun hitza da pla-zerra. Behin eta berriro, bai hez-kuntzan lan egiten dugunean, baita kontsultara etortzen dire-nekin lan egiten dugunean, pla-zerra eta gozamina izaten dira lanaren irizpide. Hau da, gure lana-rekin norberak bere gorputza ezagutu dezan eta ongi izate eta gozamenarekin lotutako ohitu-rak sustatzen saiatzen gara. Hone-tarako, gure gorputzari errepa-ratu, entzun eta behar duena eskaini besterik ez da egin behar baina askotan ez da hain erraza suertatzen.

Gizaki sexutuak garela, askotan entzun ohi dugu, eta sexutuak iza-

tea esan nahi du, gorputza dugu-la, eta hau ezberdintzen gaituen ezaugarriak beteta dagoela esan nahi du, berezi eta banakoakegi-ten gaituztenak. Ezberdinak eta bakarrak izanik, badugu aman-komunean ezaugarri bat. Hau da, gorputza edukitzeak, gogo sexuala dugula adierazten du, eta beraz plazerra eta disfruta-tzeko gaitasuna dugula ere.

Gogoia eta plazerra, gorputzak berezkoak dituen ezaugarriak dira, pertsona guztiak ditugun aukerak. Amankomuneko ezaug-arri izanik, gusto ezberdinak ditugu, eta horrela plazerra eta gozamina ez dizkigute gauza ber-dinak ematen, eta gogo sexuala

sentitzerakoan ere ez gaude gau-za berdinetan pentsatzen. Horre-la, batzuk praktika sexual zehatz batzuk nahiago dituzte, eta bes-te batzuk beste batzuk... eta hauek eguna eta momentuaren arabe-ra alda daitezke.

Gure plazer guneak eraikitze-ko, eta gure gogo sexuala ezagu-tzeko, ezinbestekoa dugu gure gorputzari erreparatzea, nola gauden entzutea, eta ongisenti-tzea helburua izanda, ondo eta gustora sentiarazten digun harre-manak eraikitzea, eta sustatzea.

Gogoratu, berezko ditugun gaita-sunak, eta pentsatu azalara-tzeko ez dugula kanpora begira-tu behar gure barrura baizik.

Horrela, barrura begiratuz, gure nahia eta beharrek topo eginez, bakarkako lana egiteaz gain, bide-lagunak aukeratu ditzazkegu, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko. Batzuetan, bidelagu-nak epe motzekoak izaten dira, beste batzuetan luze irauten dute. Bide honetan, jakin beharrekoa da, zer eta nola nahi dugun, zer desiatzen dugun, zer gauzak gus-tatzen zaizkidan, eta abar... Horrela, gure gogoia agertzerako-an ahalik eta argienak baldin bagara errazago uler gaitezke-la-ko.

Olatz Berastegi

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Gure esku dago

Manu Gomez, Etxarri 2012 ekimenaren izenean

Unea iritsi da, abian jarri dugu erabakitze eskubidearen aldeko Euskal Herri mailako herri ekimena. Hiru printzipio oinarri hartuta jarri dugu martxan tren-a, Euskal Herria Nazio natura-la da, bere etorkizuna erabakitze-

ko eskubidea du eta, soilik, Eus-kal Herri dagokigu gure etorki-zuna erabakitzea. Ziur gaude Euskal Herriarentzat proiektu politiko ezberdinak badirela, bai-na elkarren artekoen errespetu-an oinarrituz, printzipio demo-kratikoetan ados jartzeko asmoz ari gara lanean. Eskubide bat aldarrikatzea goaz, herri beza-la etorkizuna erabakitze esku-

bidea.

Ekainaren 8an Ficoban (Iru-nen) ekimenaren xehetasunak euskalgizarte aurreratuak diz-kiogu. Ekitaldi irekia izango da, gizarte sektore guztientzat. Gizarte ekimen honen erdigu-nean jarri nahi dugu, protagonista. Erabakitze eskubidea gai inportantea da politikoen esku bakarrik uzteko.

Datozen egunotan, herriz herri, auzoz auzo, eskatzen zaigun txo-ko guztietan gure proposamena-ren berri emango dugu. Modu honetan giza ekimen zabal bat artikulatzeko asmoa dugu. Web orri bat ere jarri dugu martxan www.gureeskudago.net Gonbi-dapena egina dago, Ekainaren 8an goizeko 11etan Ficoban, ager zaite-z, gure esku dago!

gora/behera



Parkea

Premia bat asetzeko auzolanean ari dira Lakuntzan.



Krisialdia

Zoritxarrez atzokoaren ondoren oraindik ere borrokatzeko arrazoiak daude.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Garazi Barandalla Campos

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

ERREPRESIOAREN KONTRAKO BATZORDEA: Altsasuko Udalak herenegun erabaki zuen batzorde hori sortzea. Altsasun erreprezioarekin bukatzeko helburua du ba-

tzordeak. Ospa mugimenduak orain arte bilera informaletan udal taldeek azaldutako interes eskasa salatu zuen.

sakanerria >>

>> Irurtzun

Hondakinen gaikako bilketa hirukoizteko hitzarmena

Mank-ek eta udalak sinatu dute, Nafarroako eta Europako legeria betetzeko egungo %25 birziklatze eskasetik %70-80ra pasatzeko

Irurtzunge Udalak eskatuta, Sakanako Mankomunitateak hurrengo sei hilabeteetan ez du etxez etxeko gaikako bilketa eredu berria ezarriko. "Irurtzundarrekin birziklatze tasa handitzeko helburuarekin duten adostasun eta konpromiso maila neurtu" behar dela adierazi dute aldeek. Hala ere, "helburu hori ukazina dela" baloratu dute. Horretarako, informazioa eta gaikako bilketa ahalik eta hondakin mota gehienetara zabaltea ezinbesteko ikusten dute.

Adostutakoaren arabera, hondakinen tasa ordaintzen duten irurtzundarrekin aurki hitzgegi bat jasoko dute. Bestalde, materia organikoa zergatik bereizi behar den azaltzeko kanpaina egingen da etxebizitza guztietan. Bi aukera emanen zaizkie: etxeko edo auzo konpostagitea. Udaletik eta Mank-etik diotenez, sistema horrek hondakinen bilketa eta tratamenduan kostuak aurreratzeko balio du. Mank-ek, bestalde, ahalik eta irurtzundar gehien esku 4 metro kubikoko

auzo-konpostagailuak uzteko konpromisoa hartu du, "etxebizitza guztietatik ahalik eta hurbilen egon daitezten". Gainera, %15eko hoberia izanen dute. Sinatzaileen iritziz, "bi aukerak borondatezkoak dira, baina nahitaezkoak ezarritako helburuak lortzeko".

Galdeketa

Irurtzunen edukiontzia jarraituko dute. Mank-ek aparte bildu eta jasotakoa pisatu egingen du. Datu horien berri hilerio emanen dio udalari. Baita konpostaren alde egin duten familien kopuruarena ere. Mank-ek, bestalde, dendarietara eta ostalarietara hondakinak gaika biltzeko aukera eskainiko die. Horrekin batera, industrialdeetako edukiontzia kenduko ditu eta enpresei emanen zaizkie.

Sei hilabeteren ondoren emaitzak baloratuko dituzte. Orduan egoki jotzen diren erabakiak hartuko dira. Eredu berria ezartzen bada, udalak aukera izanen du hari buruzko herri-kontsulta egiteko. Galdera anbiguetaterik gabekoa izanen litzateke: bai, ez, edo boto txuria.



SAKANA

Mank hondakin bilketa sistemarako material banaketarekin hasiko da



Mankomunitateak hondakinen bilketa berria azaltzeko materiala prestatu du.

Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian hasiko da banaketa

Sakanako Mankomunitateak heldu den astean jakinaraziko du hondakinen bilketa sistema berria noiz jarriko den martxan. Aurretik, hondakinak behar bezala bereiztu eta

haiak jasotzeko Mank-ek sakandarraren artean materiala banatuko du. Etxe bakoitzean hondakin organikorako kubo marroia, bestefrakzioendako kubo grisa eta sistema berriari buruzko informazio materialak ere banatuko dira (gidaliburu, hondakin hiztegia -hondakin

Horian, Nafarroako batz bestekoaren azpitik gaude

Edukiontzia horian gutxiago birziklatzen dugu Sakanan Nafarroan baino

Nafarroako Gobernuak astelehen jakinarazi zuenez, joan den urtean nafar bakoitzak 20 bat kilo ontzi utzi zituen edukiontzia horietan (plastikoa, metalak eta brickak) eta 34,5 kilo urdinetan (papera eta kartoiak); guztira, 19.528 tona ontzi birziklatu ziren Nafarroan. Zifra horiek Foru Komunitatea Espainiako gaikako bilketan buru jartzen dute. Sakanari dagokionez, Mank-etik jakinarazi digutenez, joan den

urtean edukiontzia horian 330.160 kilo jaso ziren. Baina dena ez zirenez ontzi arinak Azkoiengo plantara 19.040 kilo gutxiago eramantzen ziren, hau da, 311.120. Kontuan izanik 2012ko hasieran Sakanan 20.768 pertsona bizi zirela, sakandar bakoitzak 14,98 kilo ontzi arin birziklatu genituen. Nafarroako batz bestekoa baino 5 kilo gutxiago. Papera eta kartoiari dagokionez, 2012an 932.940 kilo jaso ziren ibarrean, edukiontzia urdinetakoa eta atez ate enpresetan eta merkataritzan jasotakoa. Horrekin nahi du sakandar bakoitzak 44,92 kilo paper eta kartoi birziklatu zituela, Nafarroan baino 10 kilo gehiago.

bakoitza non bota behar dugun jakiteko, egunero zer atera behar den jakiteko asteko egutegiaren imana eta sukaldeko kartela).

Material banaketarako egutegia

- >> Ekainak 3, astelehena**
Uharte Arakilen, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.
- >> Ekainak 4, asteartea**
Uharte Arakilen, 10:00etatik 14:00etara eta Lakuntzan, 16:00etatik 20:00etara udaletxean
- >> Ekainak 5, asteazkena**
Lakuntzan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara udaletxean.
- >> Ekainak 6, osteguna**
Urdiainen, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.
- >> Ekainak 7, ostirala**
Lakuntzan, 10:00etatik 14:00etara udaletxean eta Arbizun, 16:00etatik 20:00etara udaletxean.
- >> Ekainak 10, astelehena**
Arbizun, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara udaletxean.
- >> Ekainak 11, asteartea**
Etxarri Aranatzan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara estalopean.
- >> Ekainak 12, asteazkena**
Etxarri Aranatzan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara estalopean.
- >> Ekainak 13, osteguna**
Olatzin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.
- >> Ekainak 14, ostirala**
Olatzin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.
- >> Ekainak 17, astelehena**
Bakaikun, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara udaletxeko goiko pisuan.
- >> Ekainak 18, asteartea**
Iturmendin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.

Bazkide zozketa



MAIATZKEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO 2 SARRERA + KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO

AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1



Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

SABECO

ALTSASU

Eskaintza kanpainaren arabera.

SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibotea eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketarekin gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua paperte-

gian eta irakurketarako liburutetan.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loretan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA

ARBIZU

Manikura 18€.

>> Irurtzun

Inasa babesten, berrien zain

Goiz, arrats eta gaueko txandetan Inasako langileek enpresako atean zaintza txandak egiten segitzen dute aurreko astetik. Izan ere, "egungo egoeran, arrazoi justifikaturik gabe makinak ateratzea irregularra da, ahalik eta lanpostu gehien mantentzeko argudioa salmenta eragozteko argudio handia da".

Langileek, bestalde, inbertitzaileak enpresan interesa duela berretsi dute. Fernando Carrion Galartzak esan digunez, "guk ez dakigu ezer, baina bulegoetan mugimendua dago. Inbertitzailea administrazioarekin, epailearekin eta enpresarekin ere bilerak egin dituela azaldu digu Carrionek. "Baina Santiago Gonzalezek eta Baicap-ek makineria atera-

tzea lortzen badute langileen etorkizuna nola lapurtzen den ikusiko da". Horregatik, Nafarroako Gobernuari Inasaren eraistea nola edo hala eragozteko exijitu diote.

Inasa berritzaileek Gonzalezek bermatzen dituen 13 lanpostuak baino gehiago sortuko lituzke eta, horregatik, administratzaileek eta epaileek argi utzi dute Inasa ixteko gogoei baino enpleguari emanen diotela lehentasuna. Aldi berean, sakandarrei adi egon eta deia egiten denean makinaria ez ateratzeko harresia osatzera deitu dute.

Bestalde, Lazaro Echeverriako langileek gaur mugagabeko grebako 87. eguna egiten dute. Oraindik ere ez da aldean arteko hurbilpenik eman.

>> Etxarri Aranatz

Gobernuak udalari galdeketa bertan behera utz dezala eskatu dio



Etxarri 2012+1 ekimenak erabakitze eskubidearen aldeko Euskal Herriko plataforman parte hartzen du

«Etxarri-Aranatz Euskal Herriko udalari modura Europako estatu independente berri baten barnean sartzearekin ados al zaude?» Galdera horrekin herri-galdeketa egitea erabaki du Etxarri Aranatzko Udalak. Nafarroako Gobernuak udalari herri-galdeketa egiteko udal erabakia bertan behera uzteko eskatu dio. Nafarroako Gobernuan uste dute galdeketa "inolako toki-eskumenekin bat ez

Gure Esku Dago

Izen hori du garagarriaren 8an martxan jarriko den dinamika. Deitzaileek egun horretan Irungo Ficobara joateko deia egin dute. Hiru oinarri izanen ditu: Euskal Herria nazio bat dela, etorkizuna eta erabakitze eskubidea duela eta euskal herritarrek erabaki behar dutela. "Erabakitze eskubidearen aldeko dinamika zabal, transbertsal eta plurala bulkatzeko baldintza ezin hobek" daudela irizita sortuko da plataforma berria. Bat egin dutenen artean daude Goierriko Nazioen Munduko edota Etxarri Aranatz 2012+1 ekimeneko kideak. Aurkezpenan, Manu Gomez eta Oskar Corroza etxarriarrak izan ziren.

etortzeaz gain, Estatuarena soilik den eskumena gaintutuko zuela, nazioarteko harremana hain zuzen, eta Konstituzioaren 179.3 artikuluan jasota dagoena". +www.guaixe.net

SAKANA




Elkarretaratzea Iruñean egin zuten.

Babestutako Gizarte Lanaren alde

Astelehenean 150 bat pertonek elkarretaratzea egin zuten Iruñean, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika Saileko bulegoan aurrean. Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko bidea ematen duen Babestutako Gizarte Lanaren aldeko bilkura izan zen. Izan ere, azken hiru urtean Nafarroako Gobernuak %70eko diru-murrizketa egin du. Sakanako Gizarte Zerbitzuetako hiru mankomunitateak, Nafarroako beste bostekin batera, Babestutako Gizarte Laneko (BGL) diru-laguntza deialdia arautzen duen Foru Aginduari helegitea aurkeztu dute.

>> Irurtzun



Meteorologia estazio berria.

Meteorologia estazio berria martxan

Inasako itxierak langileak kanporatu eta lantegia husteaz gain, beste eragin bat izan zuen: Nafarroako Gobernuak enpresaren eremuan zegoen meteorologia estazioa kendu behar izan zuen. Joan den urteko garagarriaren 1ean izan zen hori. Estazio berria 300 bat metro mendealderago, kalean behera jarri dute, industrialdearen mugan eta aisialdirako gunerako bidean.

Irurtzungoan bi meteorologi estazio mota daude. Eskuzko estazioa, zein nazipertsona bat arduratzen den eta, orain arte bezala, prezipitazioa eta tenperatura (maximoa eta minimoa) neurtzen duen. Datu horiek Nafarroako Gobernuaren web orrian daude ikusgai eta astero Guaixe astekarian. Eskuzkoarekin batera, estazio erdi automatikoa jarri du AEMET-ek. Web horretan Irurtzun aukeratu zuten gero egunez eguneko tenperatura, prezipitazioa eta haizearen datuak jasotzen dira. Nafarroako eta Espainiako Gobernuak, AEMET erakundearen bidez, hitzarmena sinatu zuten, besteak beste, eskuzko meteorologi estazioak mantentzeko eta datuak elkarrekin lantzeko. Irurtzungoak hilaren 12an hartu zituen aurreneko datuak.

MOTZEAN

Korpus eguna Aralarren

Igandean Korpus Christi eguna da. Aralarako Mikel Goiaingeruaren santutegian 3 elizkizun izanen dira. Goizean, 11:00etan meza isila eta 12:30ean meza nagusia. Honen ondotik elizatik Trinitateko baselizara prozesioa egingo da. Eta, arratsaldean, 18:00etan, meza isila. Meza isilen ondoren eta prozesioaren ondoren aingeruaren irudia gurtzera emango da. Bestalde, goizean barna apaiz bat egongo da, aitortzak jasotzeko.

Korpus eguneko elizkizun bereziak Sakanako herri guztietan egingo dira. Lakuntzan festa eguna da, Arbizun lorez jositako aldareak jartzen dira eta Urdiainen jaunartzeak izaten dira.

Primerako arrozak Irurtzunen



Arroza, bakarra. Prestaketa, anitza.

Ekimena beste herrietan garatzeko herritar talde bat biltzea besterik ez da behar

Irurtzungo Foru plazako aterpean babestuta, munduko hizkuntza ezberdinak lantzeko jolasak, zuzeneko musika, grafia arabiarra... Irurtzun, Maroko, Senegal, Argentina eta Ekuadorreko sukaldariak arroz prestatu zuten, nor bere erara. Prestaketak ezberdinak, baina osagaia bera, arroza. Eta pertonek; eguna elkarrekin partekatzeo aukera izan zuten: sukaldeko errezeten inguruko galderak eta beste eginez. +www.guaixe.net

Euskara jairako arrazoia Etxarrin

Euskaltzaindiak Nafarroan antolatutako aurreneko lehen Euskal Jaia 1923ko maiatzaren 21ean ospatu zela eta, efemeridea gogoratu zuten igandean Etxarri Aranatzin

Orduan bezala, igandean Etxarrin irrirtzilariak, bertsolariak, abeslariak, hizlariak (Irañetako apaiz Garziarena, Damaso Intza eta Arturo Campion). Horiek gogorarazi zituen Jose Luis Erdozia euskaltzain urgazleak. Baita Gazte Asanbladak 80ko hamarkadan festa berreskuratu zuela, "zoritxarres, guaño, birreskuek die halako egunek, euskera bulketzeko". Erdoziak azaldu zuenez, "herri bezala iraun nehi badiau, biherko ta bulketu euskera". Etxarriko euskara batzordeak antolatutako ekitaldian Joseba Beltza bertsolariak euskarak gutako bakoitzaren aukera duela kantatu zuen. Uxue Mendiñueta (DBH 2) eta Jon

Kintana (DBH 1.) ikasleek euskara gai zituzean erretziatu zituzten.

1923aren aurretik jaiotako Isidora Iza, Anttoni Mendiola eta Ines Ulaiar omendu zituzten, belaunaldi hari omeneginez. Etorkizuna dantza taldeko Haize Berriak bandak jotako Dantzakia dantzatu zuten.

Altsasuko Peñak festetako proposamen eske

Altsasuko peñak herriko tabernetan eta lortia kultur gunean kutxak banatu dituzte. Altsasuarrei festetako sumatzen dituzten gabeziak eta proposamenak idatzi eta kutxa horietan sartzeko eskatu diete. Peñak, bestalde, festetako argazkiekin argazki erakusketa prestatzen ari dira garagarriaren 14tik eta 16ra. Horretaz aparte, Alde Zaharreko bizilagun talde batek auzotarren bazkaria antolatu du garagarriaren 15erako. Izena heldu den asteazkenean arte eman daiteke Txikitxo dendan.

Etxerako egur loteak eskatzeko epea zabalik Altsasun

Altsasuko familia unitate bakoitzak garagarriaren 14era arte bere eskabidea egiteko epea dauka. Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, loteak markatuta daude eta 3.000 kiloak dira gutxi gorabehera. Egur lote batzuk zutik egonen dira eta besteak erorita. Haiek lortia kultur gunean egindako zozketa publiko bidez banatuko dira eta udalak hura noiz izanen den garaiz jakinaraziko du. Loteen tasazioa 20 eurokoa da. +www.guaixe.net

Intxostiapunta, arratsalde zabalik

Asteleheneetik aurrera eta irailaren 27ra arte Intxostiapunta gazte gunea arratsalde zabalik egonen da. Udaleko Gazteria sailak erabaki du gazte gunea eta gazte txokoa astegunetan 18:00etatik 20:00etara zabalitza. Eraikinera 12 urtetik gorako gazteak sartu ahal izanen dira. Orain arte, garagarriko lehen asteburuarekin batera Intxostiapuntak ikasturte berrira arte atekatu zituen. Gazteei espazio bat eskaini asmoz, udalak eraikina udan ere zabalik mantentzea erabaki du.

Goi tentsioa, salaketa eta bazkaria

Autopista elektrikorik ez plataformak garagartzaroaren 9rako Otso-bi eta Satrustegi arteko mendi martxa antolatu du. Akabera bazkaria izanen da eta izena eman nahi duenak heldu den ostegunera arteko epea du. Errozko Oskia tabernan, Irurtzungo Pikuxar euskal txokoa, latmendimartxa@gmail.com e-postan edo sms bidez 674 286 048 telefonoan eman daiteke izena.

UHARTE ARAKILGO UDALA

UHARTE ARAKILGO UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA ETA JATETXEA ERRENTA EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua: UharTE Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: UharTE Arakilgo udaletxean, 2013ko ekainaren 5eko 14:00ak baino lehen.

UharTE Arakilen, 2013ko maiatzaren 16an.

Alkate Presidentea, Javier Rodríguez Astiz

BILTOKI

TABERNA • JATETXEA

Pintxoak Bokatak Plater konbinatuak Karta

Asteleheneetik ostiralera **Eguneko menua 8,25€**

Asteburuetan **Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

» Urdiain



Garabi baten laguntzaz moztu zuten.

Akabo sekuoia

Herriaren etxe parean zegoen konifera handiak herenegun azken eguna izan zuen. Gaixo zegoen, hiltzar, eta ezbeharren bat sortu aurretik, segurtasunagatik, udalak hura moztearabaki zuen. Udaletxeke langileek, TDH enpresako plataformak baliatuz, hura moztu zuten. Lehenik adarrak moztu zizkieten eta, gero, hiruzpalau metrotako zatitan moztu zuten sekuoia. Adarrak Manki eskainiko dizkiote, auzo-konpostean ekoizteko erabil ditzan. Moztutako enbor zatiak gorde eginen ditu udalak. Bestalde, sekuoiak utzitako espazioa hutsik geldituko da momentuz. Denborak esanen du espazioak elementu bertikalen bat eskatzen duen edo ez.

SAKANA

Guaixeren beste atala, Guaixe Komunikazioa

Komunikazio zerbitzu profesionala, euskaraz eta gertu

Bierrik fundazioaren lanaren emaitza nabarmenenak Guaixe astekaria eta Beleixe Irratia (FM 107,3) dira. Baina aurrenekoarekin batera, haren itzalera, sortu zen Guaixe Komunikazioa. Haren bidez diseinu eta inprenta lanak egiten dira enpresa, udal, erakunde, komertzio eta partikularrendako. Guztiek dituzten beharrei erantzuteko.

Besteak beste, honako produktuak egiten dira Guaixe Komunikazioaren bidez: egutegiak, kartelak, agendak, udal aldizkariak, bisita txartelak, eskuorriak, plotterak, postalak, jatetxeentzako kartak. Publizitatean ere adituak gara: gehigarri tematikoak, gida komertzialak, prentsa, irratia eta webguneentzako iragarriak egiten ditugu.

HARREMANETARAKO

Guaixe Komunikazioaren lana ezaugu eta informazioa jaso nahi baduzu blogera <http://guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/>, 948 562 107 telefonora edo argi@guaixe.net e-postara zuzendu zaitezke.

» Altsasu

Euskararekin konprometitzeko

Norberak euskararekin "konpromiso txikiak" hartzera gonbidatu du EHEk. Gaur 19:00etatik 21:00etara, plazan

Apirilaren hasieran gonbidatu zituen estreinako Euskal Herriko Euskaraz-ek (EHE) altsasuarakeuskararen aldeko konpromiso txiki bat hartzeko. Esaterako: lehenengo hitza euskaraz egingo dut, edo lagunekin beti euskaraz egingo dut. Beti ere, "konpromiso errealistak" izatea nahi dute. Eragile euskaltzaleko kideek konpromiso hartze horrekin altsasuarrek euskararekiko "jarrera aktiboagoa" izatea nahi dute. Ez zaitez espaloitik jaitsi!! Euskaraz bizi! dinamikaren baitan kokatzen da konpromiso hartzea.

» Ziordia

Bi langile kontratatu ditu udalak

Maiatza hasieratik langabezian zeuden bi ziordiar udalarendako ari dira lanean. Ziordiko Udalak sei hilabeteko kontratua egin die. Denbora tarte horretan, garbiketa, igerilekuak, bideen hobetzea eta bestelako lanak eginen dituzte. Haien soldata udalak eta Nafarroako Gobernuak erdibana ordainduko dute. Udalak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez ez du kontrataziorik egin, ondoren Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik jasotzea ziurtatuta ez zuelako.

Aurten udalak 300.055 euroko aurrekontua izanen du. Jesus Arrese alkateak azaldu digunez,



Ziordiko Udalak ez du inbertsiorik eginen.

ez da inbertsiorik izanen. "Aurrekontu kontinuista da eta arlo guztietan behera egin da". Horren arrazoia Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza falta eta udalaren

sarreraren handien den harrobia grebagatik jarduerarik ez duela. Bestalde, alkateak jakinarazi du aurki igerilekuen kudeaketa hartzeko deialdia eginen duela.

» Altsasu

Garagarrilerako merkataritzaren festa antolatu du ADEk

Hainbat jarduera, zozketa eta sari banatuko ditu Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE)

Ekaina, Altsasun hobe leloa egia bihurtzeko ADEk hurrengo aste-atarako hainbat jarduera antolatu ditu. Elkarteko 33 establezimenduek eskaintza osoa eta kalitatezkoa dutela erakutsi nahi dute. Eta, bide batez, halako promozio kanpainen bidez herriko merkataritza ehuna bizirik mantendu nahi dute. Horrekin batera, jakina, prestakuntza saioak ere egiten dituzte ADEko kideek.

Zozketak

Garagarrilaren 5etik 20ra ADEko kide diren establezimenduetan 6 eurotik gorako erosketak egiten dituzten guztiek txartel bat jaso-



Garagarrilaren 22an, larunbatekin, azoka izanen da Iortia kultur gune aurrean.

ko dute. Zenbaki horiek 990 euroko bi txekeren zozketarako baliagarriak dira. Hau da, ADEko kide den establezimendu bakoitzean 30 euro gastatzeko aukera izanen dute zorioneko suertatzen diren

bi pertsonak.

Saltokiak kalean

Garagarrilaren 22an, larunbatean, ADEko kide diren establezimenduetan Iortia kultur gune aurreko

plaza guztia haiendako hartuko dute. 10:00etatik 20:00etara saltokiek haien sasoiko produktu onenak ikaragarriko eskaintzak eginen dituzte. Azokarekin batera 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 19:30era haurrentzako jolas parkea izanen da. Gainera, 18:30erako Hodei Magoaren ikuskizuna iragarrita dago. Musika, sorpresak eta animazioa ez dira faltako. Eguna despeditzeko, 20:15ean, aipatu bi txekeren zozketa eginen da. Irabazleek 24tik 29ra hura gastatzeko aukera izanen dute.

Bestalde, garagarrilaren ADEk Rural Kutxaren Tarjeta Comerciorren sustapen kanpaina eginen du. Txartel horrekin hilabete guztian egindako erosketetan %5eko deskontua izanen dute bezeroek.



Klinikaren aldeko txakur erakustaldia

Igandean, 9:30etik aurrera, Altsasuko kaputxinoen egoitzan

Bocalan Biak Bat fundazioak eta Scooby txakur ile apaindegiak antolatu dute II. txakur erakustaldia. Antolatzaileek animalien

jabetza arduratsua sustatzearekin batera, dirua bildu nahi dute, fundazioak Josefina Arregi klinikari txakurrekin lagunduta egiten diren terapia proiektuak laguntzeko. Txakurren inguru-

Egitaraua

9:30etik 10:00etara Izen ematea.
10:00etik 13:00etara Arrazako txakurren lehiaketa.
11:00etik 14:00etara Presako txakurren erakustaldia.
11:30etik 12:30era Zetzerria erakustaldia.

12:00etan Maskota lehiaketa.
13:00etatik 14:00etara Txakur ile apaindegi erakustaldia.
14:00etan Herri bazkaria.
16:30ean Txakur abilezi lehiaketa.
17:00etan Txakur kirolen erakustaldia.
18:30ean Sari banaketa.
Egun guztian zehar, zaldi ibilbideak, txonza eta pintxoak.

ruan antolatutako jarduerak ugari prestatu dituzte domekarako. Parte hartu nahi duten

guztiek agiriak egunean dituzte la erakutsi beharko dute eta guztientzako saria izanen da.

MAPFRE ALTSASU

% 50 ERA ARTEKO DESKONTUA KOTXEETAKO ASEGUZETAN

Kotxeen aurrekontua eskaizteagatik, aurreko krisialerako tratamendu balaerako balea opari

J.A. Imaz Prim
Tel: 948 563 354 • Fax: 948 562 151
San Juan, 48 • ALTSASU • jimazpr@mapfre.com

Makillaje tailerra ekainak 10-15

Anima zaitez!

Reden
Lurrindenda eta kosmetika

948 562 452
ALTSASU

SAKANA

40 ikasle selektibitatean

Heldu den astean, asteazkenetik ostiralera, unibertsitatean sartzeko probak egingen dira. Selektibitate egitera Aralarko Mikel Donea ikastetxeke 40 ikasle joanen dira. Haietatik 35 D ereduak dira (67k hasi zuten ikasturtea eta 42k gainditu dute). A ereduak berriz 5 dira (19 hasi ziren eta 6k gainditu dute ikasturtea). 40 ikasle horiek batera aurreko urteetan aprobatu eta nota igotzeko aurkeztuko diren beste 6 sakandar ere izanen dira. Fase espeziifiko horretan aurkeztu diren ikasleek nota hobetu eta unibertsitate jakin baterako sarrera errazagoa lortu nahi dute.

Institutukoak NUPen bisitan



Asteartean Aralarko Mikel Donea institutuko 30 ikasle Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) izan ziren. Bigarren Hezkuntzako ikastetxekei zentroa erakusteko programaren barruan egin zen bisita. Ikasle sakandarrek NUPen hezkuntza eskaintza jaso zuten eta ibilbide gidatu baten bidez Arrosadiako campuseko azpiegiturak eta zerbitzuak ezagutu zituzten.

» Etxarri Aranatz

Interpretazio zentroaren gaineko erabakia garilerako

Lan talde irekia sortu da gaia aztertu eta erabakia hartzeko. Udaletxean eman daiteke izena

Aurreko ostegunean 80 bat pertsona (etxarriarrak eta ingurukoak) bildu ziren Etxarri Aranatzko kultur etxean Enneco, haritzaren memoria interpretazio zentroaren aurkezpenean. Proiektua landu duen Nafarroa Bizirik fundazioko ordezkariak zabala etorri zen.

Fundazioa une honetan arlo ekonomiko, tekniko eta bestelakoetan bideragarritasun plana diseinatzeko ari da. Plan hori bukatzeko lur sail bat utziko dion udal baten abala behar du fundazioak. Horregatik, egin dio proposamena Etxarri Aranatzko Udalari. Honek onartuko balu aldeek hitzarmena sinatuko lukete. Iñaki Erdozia arkitekto etxarriarrak interpretazio zentroko eraikinen eta proiektu arkitektonikoen diseinua egin du.

Etxarriko Udaleko aholkulari juridikoak eta alkateak azaldu zuten Ingurumen Departamenduan ez dutela eragozpenik ikusi proiektua egiteko. Jasotako proposamena egingarria dela ikusita, udalak osteguneko batzarra deitu zuen, proiektuaz informatzeko eta herritarren iritzia jasotzeko.



Itxura hau izanen luke Enneco, haritzaren memoria interpretazio zentroak.

Lan talde irekia

Ostegunean izan ziren guztiak bilera gaia landuko duen talde batean parte hartzea gonbidatu zituen udalak eta 17k eman zuten izena. Baina lantaldea irekia da eta interesatuek udaletxean eman dezakete izena. Eneka Maiz zinegotziak azaldu digunez hiru egiteko izanen dituzte: batzarrean esandakoak baloratu, batzarrean egindako proposamen eta iradokizunak kontuan hartu eta, azkenik, proiektua babestu nahi den erabakia eta, horrekin batera, hitzarmen zirriborroa aztertu. Garagarril-garilerako erabaki bat hartzea nahi lukete udalean.

Argi berdea jasoko balu alde-

ek hitzarmena sinatuko lukete. Udalak lurra utziko luke bideragarritasun plan hori egiteko. Hura sei hilabetetan despedituta egonen litzateke. Udalak bideragarritasun plana aztertu eta kontrastatu luke eta egoki joko balu lanak hasteko baimena emanen luke.

Etxarri Aranatzko Udalak lurra besterik ez luke utziko, dirurik ez. Maizek azaldu digunez, "Euskal Herri mailako proiektua da. Nafarroa Bizirik-en asmoa da proiektua udal, elkarte eta abarrek babestea. Etxarriko Udalak beste edozeinen moduan lagunduko luke. Egitasmoak huts egingen balu lurra udalarena izaten segituko luke".

MOTZEAN

Bihar Txunkain festa

Altsasuko tren geltoki ondoko auzoak bihar festak ospatuko ditu. Egitarau zabala prestatu dute.

Egitaraua

11:30etik 14:00etara Harley Davidson motorren erakusketa.
12:00etan Festen hasierako etxajua.
12:30ean Mariatxien doinuak.
14:30ean Herri bazkaria Geltoki kalean.
16:00etan IV. Mus txapelketa azkarra.
18:00etan Goitiurak Altzania ibaian.
18:00etan Txarangak.
18:30ean Txokolate dastaketa eta globofexia tailerra.
22:00etan Los Pistaxos orkestra.
23:00etan Los del Rayo eta Green Warriors taldeen kontzertuak. Ondoren Txen eta Soul Prey DJ-ak.
1:00etan Zezen mekanikoko txapelketa: Gaztetxea, Txunkai, Zumalakarregi, Larrainbide eta Beheko Bentakoak.
3:00etan DJak.

Errausketaren kontra, Iruñerako deia



Bihar, larunbata, 12:00etan Parlamentuaren aurrean

3 Mugak Batera plataformak deituta bihar eguerdian kontzentrazioa egingen da Nafarroako Parlamentuaren aurrean. *Errausketak hil egiten du* lelopean Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzeko dagoen egitasmoa bertan behera utzeko eskatuko du 3MbK. Sakandarrak elkarretaratzean parte hartzea deitu dituzte plataformatik.

Harrera Apestegiari

Carlos Apestegia Jaka 22an aske utzi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko aurreneko aretoak. Apestegia Cadizko Puerto de Santa Maria espetxetik atera zen hainbat kartzeletan 21 urte preso egin ondoren. Ostiral arratsaldean Etxarri Aranatzera iritsi zen eta bere amaren familiaren etxean gertukoekin bildu zen. Ondoren, 18:30ean, Bureinako plazan harrera egin zioten hain-

bat etxarriarrek. Bertsoak entzun zituen. Herrirako kide batek haren askatasuna berri ona zela adierazi zuen eta gainontzekoak ekarri arte lanean jarraitzeko deia egin zuen. Apestegiak, bestalde, senide eta lagunak eskertu zituen. Etxarritik Hernanirajo zuen eta han ere harre- ra egin zioten.

Aldizkari berria: Sakanako Hotsak

Asteburuan banatu zuten ibarreko taberna, denda eta kultur etxeetan Enara Insaustik eta Juan Luis Napalek haiek egindako aldizkaria: Sakanako Hotsak, dohainik eskuratu daitekeena, elebitan, euskaraz eta gaztelaniaz. Belexe Irratian (FM 107,3) azaldu dutenez, izen hori jarri diote ibarreko hotsak, soinu txoak bilatzen dituztelako. Napalek argitu duenez, "Sakana beste modu batera saldu eta ezagutarazi nahi dugu. Ez da informazio aldizkari bat. Atentorala da. Sakanako enpresen berri ematen dugu, ekintza batzuk ezagutarazten ditugu, baina beste modu batean". Eta horretan guztian irudiak indar berezia hartu du.

Aldizkariak dituen atalei dagokienez, Insaustik azaldu du atalrik zabalen publikierreportajeak direla. Horrekin batera, elkarrizketa bat eta kolaborazioak izanen dira: Pello Reparazek musikaz idatziko du, Irati Binue Insausti sarean ageri diren munduko gaien inguruan ariko da eta Morkotsek komikia egingen du. Lehen zenbakia jendearen gustakoa izan dela azaldu digute. "Oso pozik gaude emaitzarekin eta jasotakoarekin", azaldu du Napalek. Jendea gehien harritu duena, aldizkaria bertikalean irakurri beharrean horizontalean azaldu eta irakurri behar dela. Hiru hilero sorpresaren bat ematen saiatuko da bikotea. +www.guaixe.net

Joste tailer libertarioa Bakaikun

Sakanako Asanblada Libertarioak kontsumismoaren katea hausteko, arropa konpondu edo birziklatu ahal izateko joste tailerra antolatu du. Garagarrileko asteazkenetan egingen dira tailer horiek Bakaikuko eskola zaharretan. Lehenik, heldu den asteazkenean, garagarrilak 5, informazio batzarra izanen da. Tailerrean izena eman nahi duena babarrunbeltzak@gmail.com helbidera zuzendu daiteke.

Ekaina, hobe Altsasun

Ekainaren 22an lortia zabalgunean

Zuzenean 20:15ean 990 euroko bi treke erositakotarako.

"Zure saltoa kalera doa" jardunaldia Kideak diren saltoiak kalera itengo dira 10:00etatik 20:30era

Produktu onenaren ikaragarriko eskaintzak

Haurrentzako ehintzak
Haurrentzako jolas-parkeak
11:30 - 13:30 / 17:30 - 19:30
Odoi Magoa 18:30 - 19:30

Ekainaren 5etik 20ra Hasteko!

Eskatu zure txartela
6 euroko erosketetatik aurrera
Egun hauetan zehar egin zaitez gure Facebook-eko jarraitzaileak.
Jarraitzaileen artean "irteera" bat zozketatuko da.

% 5eko deskontua Comercio txartelarekin ordainduz gero

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira.** Argazki bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidera. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Udaberriko argazki lehiaketa

>> Saria: SAVAN informatikak eskaintako liburu digitala

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira.** Argazki bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidera. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

M 30- Greba orokorra

Aldaketarako indarrak biltzen

Jarraipen desorekatua izan zuen greba orokor deialdiak

Finantza arloak sortutako krisialdiak ekarri dituen ondorioei erantzuteko atzo Sakanan zazpi-garren greba orokorra egin zen. Indar erakustaldi gisa hartu zuten deitzaileek, “martxan jarri nahi dugun prozesu soziala, Euskal Herriko gutun soziala, bulkatzeko”. Horretan euskal gehiengo sozial eta sindikalaren aldarrikapenak jasoko dira. Hurrengo hilabeteetan alternatiba hori eraikiko dela adierazi zuten: “bestelako gizarte eredu bat lortzen saiatzea, langileriaren gehiengoren oinarritzko eskubideak bermatuko dituen ongizate estatua: lan eta pentsio duina, gizarte babesa, bizitza eta denendako kalitatezko zerbitzu publikoak”.

Jarraipena

Irailekoaren eta otsailekoaren ondoren, denbora gutxian deitutako hirugarrena izan da. Eta horrek herritarren erantzunean eragina izan zuen, jarraipena ezberdina izan baitzen. Langile batzuen neke eta lanpostua galtzeko beldurra nabaritu zela azaldu zuten antolatzaileek. Hala ere, erantzunarekin pozik zeuden.

Zerbitzu publikoetan jarraipen zabala izan zen: udal gehienak, mankomunitateak eta gizarte zerbitzuak gelditu egin ziren. Herrietan denda txikiak, orokorrean, itxi egin zuten. Handiei dagokionez, Eroskik itxi zuen, DIA pikeeteek itxi zuten eta Netto zabalik geratu zen. Industrian aurreko deialdietan baino txikiagoa izan zen jarraipena. Magotteauxek, GHk, Tratamientos Algoik, Ego-kik, Nortenek, Panificadora Amayak, Altsasuko kiroldegia, Omniak, edo Zurgaik itxi egin zuten. Lanuzte partzialak izan ziren, berriz, Apoyos Metalicosen,

Sunsundeguin edo Portlanden.

Hezkuntzan jarraipen zabala izan zuen atzoko deialdiak. %55eko jarraipena izan zuen ikastetxe publikoetan eta gutxieneko zerbitzuak bete ziren ikastoletan. Egurdiko manifestazio akaberan Blanca Ilundainek LOMCE legea kritikatu zuen: “eskola publikoa eliza, merkaturia eta eskuin zaharkituenaren menpe jarri nahi du”. Euskal hezkuntza eredu defendatu zuen, bertan definituko dena: “eztabaida hori sustatu eta zabaldu behar da, eta eztabaida horren erdigunean Euskal Herriaren erabakitze eskubidea jarri behar da”.

Inguratuta

Gizarte zerbitzuak babesteko nahia irudikatu zen eguerdian Altsasun egindako mobilizazioan. Manifestariak Gizarte Zerbitzuen mankomunitatearen egoitza hartzen duen etxadia inguratu zuten. Orain arte lortutako eskubideak eta gizarte onurak galtzen uzteko ez eta haiek defendatzeko prest daudela irudikatu zuten. Horretan ari zirela murrizketen kontrako oihuak egin zituzten.

Caixa-ren bulegoko etxadia ere inguratu zuten manifestariak. Gainera, bulegoari bizkarra eman zioten. “Foru kortijoak, eliteak, nafarrei egindako arpilatzea eta ustelkeria” salatu zuten horrela. Orduan *banketxeak lapurrak eta ez dago ogirik hainbeste txorizorendako* leloak oihukatu zituzten manifestariak.

Adierazpenak

Gaizka Uhartek, LABeko kideak, adierazi zuenez kapitalak eta Troiak pribatizazio, murrizketa, pentsioen eta lan erreformen gainean krisiari irteera eman nahi diote, aberastasuna pilatuz. Borrokaren balioa aldarrikatu zuten: “egiten ari garen borrokaren emaitzak luzera ikusiko ditugu”. Euskal Herrian egungo ereduari alternatiba bat eraikitzeko



Mobilizazioak

Irurtzunen 150 pertonek lehenik kontzentrazioa egin zuten eta ondoren manifestazioa. Inasaren egoera presente izan zen uneoro. Etxarri Aranatzenean ere manifestazioa egin zuten 150 pertonek. Altsasun, berriz, 300 bat izan ziren goizean mobilizatu zirenak. Olatzagutian 42 pertona kontzentratu zirenetan ondoren hamaiketako izan zuten. Ziordian, harrobietako bidean, 50 bat pertona elkartu ziren Lazaro Echeverriako langileei elkartasuna adierazteko. Egurdiko manifestazioan 1.100 pertona bildu ziren. Inasa eta Lazaro Echeverriako lan gatazka presenten izan ziren Altsasuko manifestazioan. Arratsaldean Irurtzunen manifestazioa egin zen.

beharra aldarrikatu zuen. Klase gatazka gaur inoiz baino nabar-



Ziordian Lazaro Echeverriako langileei elkartasuna azaldu zieten.



Etxarriko goizeko manifestazioa.



Altsasuko goizeko manifestazioa.

menago ageri dela azaldu zuen Uhartek eta haien erronka “ofentsibara jendea batzea eta Euskal Herriak behar duen aldaketa gauzatzea” dela.

Gorka Viergek, ELAko kideak, krisialdiaren aurrean herritarrei uzten zaien aukera bakarra borroka dela adierazi zuen. Aberatsek herritarren kontura gero eta gehiago aberasten ari direla

salatu zuten. Murrizketak eta bidegabekeriak ezartzen dituzten alderdien ustelkeriaz nazkatuta daudela adierazi zuen Viergek. Hezkuntza eta osasuna izorratu ondoren, negozioa egiteko pentsioen bila doazela ziurtatu zuen. Justizia, duintasuna eta demokrazia, oinarri horiek aldarrikatzeko elkartzera eta antolatzaera deitu zuten.

Guaixerekin Gariaren kontzertura

Bi sarrera ditugu ondoko galdera erantzuten dutenen artean zozketatzeko:

Zenbat urte beteko ditu aurten Berriak?

Erantzunak ekainaren 5a baino lehen bidali bierrifundazioa@gmail.com helbidera.

Sarituak ekainaren 7an emanen ditugu ezagutzera





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Miguel Arbizu Barrikarte

I. urteurrena

Sinesten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla:
landareetatik zuhaitzak

zuhaitzetatik loreak
loreetatik fruituak
fruituetatik gizonak
eta abereak bazkatuko direla.

Zure koadrila



Miguel Arbizu Barrikarte

I. urteurrena

Ibai de Goñi Arbizu

X. urteurrena

Denbora batiako uzten zeittutenien, ez gio urtetan penai lotu.
Beixe hasi, inyertsu eta farra aguen dezula;
negati eta ne izenien, bizi zuu biziye.

Igandean, Etxarri Aranazko elizan eguerdiko 12:00etan, beraien aldeko meza.

Etxarri Aranatz



Miguel Arregi Razkin

I. urteurrena

Ez zaude bertan
baina gure bihotzean
beti egonen zara.

Zure emaztea, seme-alabak eta ilobak

JAIOTZAK

- Oier Sanchez Encinas, apirilaren 24an Iturmendin.
- Oihan Urtasun Roy, martxoaren 12an Iturmendin.
- Arai Lopez de Goikoetxea Goñi, maiatzaren 7an Iturmendin.
- Yasser Houdaf El Khatib, maiatzaren 18an Altsasun.
- Maya Villalobos Garcia, maiatzaren 20an Irurtzunen.
- Egoitz Ieregi Carretero, maiatzaren 21ean Arbizun.

EZKONTZAK

- Eloy Jaka Artieda eta Ariane Arizkorreta Aldasoro, maiatzaren 25ean, Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**.
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/
hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Urdiaingo Udaren Euskaraz kanpainarako begirale bat. Behar da. Curriculumak ekainaren 3a baino lehen Urdiaingo udaletxean utzi. Informazio gehiago jasotzeko deitu 676- 30 00 83 telefonora.

Aisialdiko monitoriak behar ditugu.

Irai Anton Flores

“Haurtxo haurtxoa
eizu egin lo
bihotzetan zaitugu
betirako”.

Intza, aita eta ama



Irai Anton Flores

Zeruko izar diztiratsuenari begira
esango dizugu gabon gauero.

Kaxetakuek

Arbizuko Udala. Curriculumak aurkezteko epea udaletxean ekainaren 4a arte edo info@arbizu.info helbidera bidali.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe adosatu bat salgai edo alokairuan
Uharte Arakilen. Alokairua 500€, salgai 150.000

€. Interesatuak hots egin 629- 8350 42 telefonora.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako elkarteak alokatzen da. Lizarragako San Adrian festak direla eta, ekainaren 15ean, 16an eta 17an “Azi Iturri Txokoa” elkarteak alokatuko dugu. Ekainaren 1ean arratsaldeko 18:00etan enkantea egingen dugu. Gutxieneko alokairua 600 €koa izanen da.



Irai Anton Flores

Orain sentitzen dugun
samina baino handiagoa da
zugatik sentitzen dugun maitasuna.

Arbizuko familia



Manuel Mundiñano Ezkutari

I. urteurrena

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan dakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Urteurreneko meza Etxarri Aranazko elizan
ekainaren 2an eguerdiko 12:00etan.

Zure familia

Opariak

Katakumeak oparitzen dira. Interesatuak hots egin 669- 35 42 30 telefonora.

Galdutakoak / opatutakoak

GALDUTAKOAK

Nokia mugikor arrunta. Galdu nuen Etxarriko Iratxo tabernan. Opatu duenak, mesedez, utz dezala Guaixeko Altsasuko bulegoan. Esker mila.

MENDIA

IKASTOLEKIN ELHORRIETARA: "Nafarroan bizi" ekimenean, Sakanako ikastolako mendi taldekoak Iparraldeko ikastetxeetako lagune-

kin bilduko dira igandean, 11:00etan, Izpegiko gainean, elkarrekin Elhorrietako lepora joateko. Hitzordua: 9:00etan Etxarriko ikastolan.

Areto futbola



Triman Navarra Xotak play off-ei agur

Irurtzango Triman Navarra Xotaren dako denboraldia despeditu da. Areto futboleko ohorezko mailako liga erregularrean 6. postuan sailkatu zen Triman (45 puntu), eta titulu erabakitze play off-etarako sailkatu zen. Play off-etako final laurdenetan Inter Movistar talde ahaltsuaren kontra aritzea tokatu zitzaion. Trimanek joanekoan luzapenean 5-4 galdu ondoren, larunbatean itzulerako partidaren berriz ere 5-4 galdu zuen, luzapenean. Triman play off-etatik kanpo geratu da, baina Imanol Arregi kontentua dago bere jokalariek egindako lanarekin.

Futbola

Altsasuk Valtierano arerio Kopan

Altsasu futbol taldeak Udaberriko Kopan aurrera egin du, final hamaseirenetan Marcilla taldea mencean hartu eta gero. Joaneko partidaren galdu ondoren, itzulikoan 3-1 irabazi zion Altsasuk Marcillari. Final zortzirenetan, partida bakarrera, Valtierano izango du aurkari Altsasuk. Partida igandean jokatuko da, 17:00etan, Valtieran.

Izurdiagako Futbol 8: finalerdiak jokoan

Izurdiagako Futbol 8 Txapelketan 8 talde lehiatu dira eta iritsi dira finalerdiak. Larunbatean, 16:00etan, Izurdiagako futbol zelaian, Itsasperi-Lacturale eta Karrotillo lehiatuko dira.

Sokatira

Sakanak txapela ekarri du

Larunbatean Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako azken jardunaldia jokatu zen Berriozarren. Emakumezkoetan (260 kilo), Nerea Lizarragak entrenatzen dituen Sakana taldeko neskek onenak izan ziren, Basaburua-Imotzen, Berriozarren eta Txantrearen kontrako tiraldiak irabazita. Lau jardunaldiko puntuak batuta, Sakana izan da onena (14,5 puntu), Basaburua-Imotz (11 p.), Berriozar (10,5 p.) eta Txantrea (4 p.) taldeen aurretik.

Lehen bi sailkatuek finala jokatu zuten eta Sakana taldea nagusitu zitzaion Basaburua-Imotzi, txapela lortuz. Zorionik beroenak!

Kadeteetan (280 kilo), Berriozar A nagusitu zen azken jardunaldian, Andra Mari ikastolarena aurretik. 4 jardunaldietako puntuak batuz Berriozar A izan zen lehena (19 p.), Andra Mari (17 p.), Ultzama (10,5 p.), Berriozar B (9,5 p.) eta Andra Mari ikastolatik sortutako Beriain (4 p.) taldeen aurretik. Lehen bi



Sakana taldeko neskek, lehia baino lehen beroketa egiten.

sailkatuen artean finala jokatu zen, eta, tamalez, Berriozar A taldea nagusitu zitzaion Andra Mari

talde sakandarrari. Gizonezkoetan Amañur A izan da txapelduna.

Triatloia

Udako triatloi campusa, gazteendako aukera polita

ALTSASUN IZANEN DA, UZTAILAREN 15ETIK 26RA. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO EKAINAREN 14RA ARTE, MANK-EN

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hiru erakunderen laguntzarekin -Sakana Triatloi Taldea, Atabo Altsasua S.L. eta Nafarroako Kirol Institutua- triatloi campusa antolatu du udarako. Campusa uztailaren 15etik 26ra izanen da, Altsasuko igerilekuan, astelehene-tik ostiralera, 11:00etatik 13:00eta-

ra. 8 urtetik 16 urte bitartekoek parte hartu ahaliko dute.

Triatloi campuseko begiraleak Sakana Triatloi Taldeko Aitor Mozo, Urko Berdud eta Mikel Lakuntza izanen dira. Atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza elkar-tzen dituen jardueraren honetako nondik norakoak azalduko dizkiete

izena ematen duten gaztetxoei, teoria eta praktika uztartuz. Jolasen bidez murgilduko dira kirol eder honetan. Gainera, uztailaren 20an Sakanako XI. Triatloia ospatuko da Urdiainen eta campusean ari diren gazteek bertan parte hartzeko aukera izanen dute.

Izena ematea non

Ekainaren 14ra arte eman daiteke izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866) edo kirolak@sakanamank.com posta elektronikokoan. Kuota: 40 euro, Euskadiko Kutzako 3035 011693 116.0.00332.8 kontuan.

Mendi txirrindularitza

Loiolatik Arantzazura

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak Burunda Txirrindularitza Klubeko BTT sailarekin mendiko bizikleta ibilbidea antolatu zuen igandean. Txirrindulariak Loiolatik aterata Arantzazura iritsi ziren, Urolako bide berdea ere erabiliz. Eguraldia lagun, ibilbide polita egin zuten guztiek. "Oraingo honetan 3 gazte berri animatu dira. Ea aurrerantzean gehiago animatzen diren" aipatu digu Amaia Gerrikagoitia teknikariak.



Taldea Arantzazuko santutegiaren aurrean. UTZITAKOIA

Altsasu BTT zeharkaldirako izena ematea zabalik

Ekainaren 9an, igandearrekin, Burunda Klubak antolatutako 18. Altsasu BTT Zeharkaldia burutuko da, proba ez lehiakorra. (42,5 km). Izena ematea zabalik dago, aurretik, www.clubciclistaburunda.com web gunean (federatuek 17 euro eta federaturu gabeek 21 euro). Bestela, probaren egunean bertan egin daiteke inskripzioa, 7:45etik 9:00etara (federatuek 21 euro eta federaturu gabeek 25 euro).

arregui
eraikuntzak

Eraikitako 265m²ko pabilioia + solairuareta eta 1700m²ko lur sail urbanizatu erabilgarria Olaztin

San Juan 52 behea · ALTSASU
T. 948 562 008 F. 948 468 463
www.construccionesarregui.com
admon@construccionesarregui.com

Igoa
arraiendegia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Arantzaz

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Arantzaz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Atletismoa

Gandara eta San Martin azkarrenak Iturmendin

72 KORRIKALARI LEHIATU ZIREN 9. AITZKOZAR HERRI KROSEKO PROBA NAGUSIAN ETA TORRELAVEGAKOA ETA ETXARRIARRA GAILENDU ZIREN

Sakandarrak 9. Aitzkozar Herri Krosean

1.	Raul Gandara	27:33
2.	Javier Moreno	27:58
3.	Felix Benjumea	28:43
4.	Juan Carlos Gomez	29:33
5.	Juantxo Arregi	29:41
6.	Fco. Javier Gomez (lehen beteranoa)	29:41
16.	Juan Luis Maiza	30:56
17.	Emilio Guirado	31:10
18.	Antton Zelaia	31:11
19.	Jon Araña	31:18
20.	Patxi Cano	31:27
21.	Iker Flores	31:31
22.	Ivan Gonzalez	31:39
23.	Luis Flores	32:15
25.	Juantxo Azurmendi	32:36
27.	Santi Agirre	34:01
29.	Juan Pedro Aritz	34:28
30.	Juan Carlos Perez	34:43
31.	Ismael L. de Goikoetxea	34:48
34.	Jordi Arbizu	35:34
35.	Sergio Ondarra	35:53
36.	Gotzon Auzmendi	36:05
37.	Asier Lopez	36:09
39.	Urko Agirre	36:38
40.	Ernesto Leiza	36:40
43.	Joakin Maria Albeniz	37:08
46.	Javier Galarza	37:45
47.	Erkuden San Martin (lehen emakumea)	37:58
51.	Aingeru Azazeta	38:42
52.	Jone Pelaez	38:42
53.	Eusebio Vinagre	39:20
54.	Mari Gwen Davies	39:50
56.	Luis Angel Diaz	41:23
57.	Lander Urriza	42:37
58.	Victor Lopez	43:13
59.	Haizea Ramirez de Alda	43:13
60.	Isabel Pozueta	43:13
61.	Ander Muñoz	43:18
62.	Jose Mari Galindo	43:18
63.	Izakun Leiza	43:21
65.	Nerea Berastegi	43:37
66.	Ixa San Martin	43:38
67.	Eki Galarza	44:59
68.	Edurne Razkin	48:18
69.	Txaro Ondarra	50:39



Aitzkozar lasterketaren irteera.

Aurten, Irurtzango Aitzkozar elkarteak eta Bakaikuko Baka-rrekoetxea elkarteak elkarlanean antolatutako 9. Aitzkozar Herri Krosak Iturmendi izan zuen irteera eta helmuga.

Lehenik eta behin, kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren, eta 18:30etik aurrera proba nagusia. 72 korrikalarik hartu zuten irteera, gehienak sakandarrak, Iturmendiko plazatik. Iturmenditik Bakaikura eta buelta antolatutako 4.050 metroko ibilbideari bi itzuli eman behar izan zizkieten korrikalariek, ibilbide gorabeheratsuan. Torre-lavegako Raul Gandarak hasieratik aurrea hartu zuen, eta nahiz eta Javi Moreno altsasuarrak lehen itzulian Gandararen erritmoa eutsi, 5. kilometrotik aurrera kan-

tabriarrak erritmoa azkartu eta Moreno atzean utzi zuen. Helmuga bakarrik iritsi zen Gandara (27:33), Morenori 25 segundo aterata (27:58). Felix Benjumea altsasuarrakosatuzen podiuma (28:43).

Emakumezkoetan Erkuden San Martin etxarriarra (37:58) gailendu zitzaion Ana Mir iruindarrari, 17 segundotan (38:15). Ana Liron beasaindarrak osatu zuen podiuma (38:25). Sari emate ekitaldiaren bukaeran auzate ederraz gozatu zuten korrikalariek.

Aitzkozar Krosak Sakanako X. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustu zuen. Beste 3 lasterketa geratzen dira: Ergoienako Bira, Sakanako XIII. Herri Lasterketa eta Altsasuko Barricarteren Oroimenezkoa.

Txirrindularitza

Bihar kadeteen lasterketa Iturmendin

Bihar, ekainaren lehen larunbatean, kadeteen mailako lasterketa hartuko du Iturmendik, I. Iturmendi Trofeoa. Lasterketa 17:00etan hasiko da eta 52 km osatu beharko dituzte. Iturmenditik atera eta Arbizuraino joango dira, Lizarragabengoatik Etxarriraino heltzeko. Handik Ziordiraino joko dute, bertan buelta hartu eta Olaztitik Altamira igo eta jaisteko. Etxarriraino segituko dute, handik buelta hartu eta Iturmendiko helmugara iristeko.

Beste probak

Larunbatean eskolen mailako lasterketa izanen da Iruñean, Agustinos poligonoan, 17:00etan. Juniorrek igandean dute hitzordua Galarran, 10:30ean (64 km). Eta elite mailako eta 23 urtez azpiko afizionatuak Nafarroako Itzulian lehiatuko dira. Tartean dago Rural Kutxa talde sakandarra.

Girotik bueltan

Merezimendu osoz irabazi du Giroa Vincenzo Nibalik, Urani 4:43 minutu aterata. Euskaltel garaipenik eta goiko posturik gabe itzuli da, nahiz eta taldekideak, tartean lesionatu eta proba utzi behar izan zuen Urtasun, Egoi, Azanza eta Verdugo, behin eta berriz saiatu. Jose Luis Arrietak zuzentzen duen Movistar, aldiz, oso pozik dago, 4 garaipenekin eta Intxaustiren 8. postuarekin.

Mendi lasterketak

Arrieta 28.a Zegama-Aizkorin

Unzurrunzaga 2. beterano onena



Sakandarrak Zegama-Aizkorin (42 km)

1.	Kilian Jornet	3:54:38
28.	Angel Arrieta	4:28:32
45.	Ander Unzurrunzaga	4:36:01
93.	Karlos Zelaia	4:56:55
250.	Carlos Gerendiaín	5:54:24
410.	Jose Antonio Salgado	7:18:35
411.	Sergio Goñi	7:18:36

Pronostikoak betetz Kilian Jornet irabazlea izan zen (3:54:38), baina 12 segundo eskasera helmugaratu zen Luis Alberto Hernando (3:54:50). Emakumezkoetan, Emelie Forsberg norvegiarra izan zen azkarrena (4:48:12). Sakandarrei dagokionez, Angel Arrieta uhartearra sasoi betean dago eta 28.a iritsi zen helmugara (4:28:32). Ander Unzurrunzaga 45.a iritsi zen, beteranoetan 2. postuan.

PANIAGUA JUNIORRETAN

Zegaman juniorren mailako lasterketa antolatu zen (10,4 km). Juan Jose Rodriguezek irabazi zuen (47:16). Julen Paniagua sakandarra 16.a sailkatu zen (57:27).

Iñaki Martiarena bigarrena Ezkaban

Sakandarrak Ezkaba Trailean (26 km)

1.	Joseba Larralde	2:13:45
2.	Iñaki Martiarena	2:14:01
4.	Jose Javier Maiza	2:21:27
6.	Jose Luis Beraza	2:22:09
11.	Gorka Santesteban	2:27:20
14.	Patxi Albeniz	2:36:01
19.	Juantxo Arregi	2:39:59
27.	Iñaki Otxoa	2:43:03
34.	Aitor Hernaiz	2:46:04
49.	Jose Javier Beregaña	3:01:10
78.	David Oroz	1:03:44

Igandean Antsoainek 4. Ezkaba Trail lasterketa hartu zuen. Joseba Larralde heldu zen lehena (2:13:45), Aralar Mendi taldeko Iñaki Martiarena uhartearrari 16 segundo aterata (2:14:01). Gainontzeko sakandarrak ere goian izan ziren; tartean Jose Javier Maiza etxarriarra 4.a eta Jose Luis Beraza uhartearra 6.a sailkatu ziren. Emakumezkoetan Alicia Olazabalek ez zuen areririk izan (2:46:03), eta Aran Larrañaga uhartearra 3.a sailkatu zen (3:15:13).

LAKUNTZA-ARALAR, ATE JOKA: IZENA EMATEA ZABALIK

Ekainaren 9an jokatu koda 10. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa (28 km). Nafarroako Mendi Lasterketan Zirkuiturako baliagarria izateaz gain, Euskadiko Koparako puntuagarria izango da. Kadete eta juniorrendako ibilbidea prestatu da ere (16 km). Izena emateko epea zabalik dago www.lakuntza-aralar.com webgunean (federatuek 25 euro, federatuek gabe 30 euro), ekainaren 6ra arte. Momentuz 138k eman dute izena.

Pilota

21. IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA-LACTURALE

Txapelak ez dira Sakanan gelditu

HELDUEN FINALEAN EZKURDIAK ETA IRAÑETA EZIN IZAN ZUTEN SANTZOREN ETA URRUZOLAREN KONTRA

Finalak

Urreak: Laso - Azpiroz (Irurtzun) **9** / Albeniz - Unanue (Añorga) **16**
Kimuak: Zabaltza - Igoa (Ardoi) **15** / Oskoz - Cuairan (Oberena) **18**
Haurrak: Aranguren - Zubeldia (Zazpi - Iturri) **11** / Salaberria - Mariezkurrena (Erreka) **18**
Kadeteak: Okiñena - Iurita (Oberena) **18** / Marcos - Aizpuru (Titin) **12**
Gazteak: Espinal - Sarasa (Huarte) **22** / Bakaikoa - Mariezkurrena (Erreka) **19**
HELDUAK: Ezkurdia - Irañeta (Irurtzun) **13** / Santxo - Urruzola (Usurbil) **22**

ñeta. Santxo izan zen partidako onena. Gazteetan, Erreka taldean dabilen Bakaikoa etxarriarrak eta Mariezkurrenak galdu egin zuten, 22-19, Uharte Iruñeko Espinalen eta Sarasaren kontra, finalerako partida gogorrean.

Sariemate ekitaldia Irurtzongo Klubari oso lotuta egon diren Alfredo Sarasola "Cancho" eta Domingo Nagore omentzeko baliatu zuten, klubeko kideek diotenez "urte asko-

tan lan handia egin dutelako Irurtzunen pilota sustatzeko".

Ongay Openeko finalean

Nahiz eta Aspek kontratua ez berri-tu, Alberto Ongayk pilotan jarraitzen du. Nafarroako Buruz Buruko Openeko finalerdian Armendarizen kontra irabazi eta gero, Mattin Ezkurdia irabaztetik datorren Jose Luis Tabarren kontra jokatu du finala gaur, ostiralean, Iruñean.

Larunbatean 21. Irurtzongo Pilota Txapelketa-Lacturale lehiaketako finalak jokatu ziren. Irurtzongo Pilota Klubak antolatutako txapelketa honetan 150 pilotari baino gehiago lehiatu dira eta kalitate eta emozio handiko partidez gozatzeko aukera izan da.

Finalerako partidak biziak izan ziren eta Irurtzongo Bi Aizpe pilotalekuan bildu ziren pilotazaleak ongi pasatu zuten. Tamalez, aurten txapelak ez dira Sakanan gelditu. Helduetan Usurbilgo Santxok eta Urruzolak 13 tantotan utzi zituzten Irurtzun klubeko Ezkurdia eta Ira-



Finalista guztiak, Irurtzun klubeko kide, omendu, pilotari eta udal ordezkariekin. UTZITAKOAK

Irristaketa



Ioseba Fernandez irristalaria, munduko txapelduna izateaz gain, errekor berria ezarri du: 300 metro 23,929 segundotan.

Ioseba Fernandez munduko errekor berria: 300 metro 23,929 segundotan

Ioseba Fernandez irristalari iturmen-diarrak 300 metro erlojuz kontrako irristaketa errekorra gainditu zuen larunbatean Txantrean jokaturako Espainiako Irristaketa Txapelketetan. 2012an Abiadurako Munduko Patinaje Txapelketan 300 metroko erlojupekoan bigarren sailkatu zen Ioseba (24,774 segundo), Pedro Causil kolonbiarraren atzetik. Iturmen-diarrak arantza kendu du eta 300 metroak 24 segundotik behera egitea lortu du, 23,929 segundotan, munduko errekor berri bat ezarriz.

Irristaketa

Sei talde Iratxo Botxa Txapelketan

Aurreko asteburuan hasi zen jokatzen, Irurtzunen, Iratxo Botxa Txapelketa. Botxa petanka antzeko jokoa da. Aurten 6 talde lehiatzen ari dira. Ekainaren 21era bitartean ligaxka jokatuko dute, ekainaren 21ean finalerdien txanda izango da eta ekainaren 22an final handiak jokatuko dira.

Asteburuko jardunaldia

>> Maiatzak 31, ostirala

19:00etan: AHTrik ez / Lirainak

20:00etan: Desesperados / AHTrik ez

>> Ekainak 1, larunbata

19:00etan: Felix-Migel-Xabier / Tirillas

20:00etan: Tirillas / Tximeleta

>> Ekainak 2, igandea

19:00etan: Felix-Migel-Xabier / Lirainak

6 taldeak

Tximeleta (Pakita, Alizia eta Josune), Lirainak (Santos, Marian eta Julen), Desesperados (Txeli, Tere eta Juanito), AHTrik ez (Florentino, Marivi eta Mikel), Tirillas (Mari, Jabi eta Alfredo) eta Migel-Felix-Xabier.

Aizkora

Nazabal txapelari begira

IGANDEAN BANAKAKO URREZKO AIZKORAKO FINALA JOKATUKO DA AZPEITIAKO IZARRAITZEN, 12:00ETAN (ETB1)

Igandean Azpeitiko Izarraitz pilotalekuak Banakako Urrezko Aizkorako finala hartuko du, 12:00etan (ETB1). Lau aizkolari iritsi dira finalera: Floren Nazabal etxarriarra, Jon Rekondo, Aitzol Atutxa eta Joseba Otaegi.

Aizkolariek 6 lan egin beharko

dituzte, guztira 12 enbor erdibituz: 45 ontzako ea zeinek kolpe gutxiagoan moztu; erlojuaren kontra 45 ontzako erdibitu; 60 ontzako zutik erdibitu; 60 ontzako etzanda erdibitu; kana erdiko bat zutik eta beste bat etzanda moztu; eta, bukaeran, lan luzea: lau kanaer-

diko eta bi 60 ontzako erdibitu.

Floren Nazabal da txapela janzteko faborito nagusia, baina atzetik gogor datoz Rekondo, Atutxa eta Otaegi. Ea etxarriarrak poza ekartzen duen gurera eta denboraldiko txapel preziatuenetako bat janzten duen.



Motoziklismoa

Mariñelarena 3.a MotorLanden

ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETAKO MOTO 2 MAILAN BIGARRENA DA IRURTZUNDARRA

Asteburuan Espainiako Motoziklismoko Abiadura Txapelketako 2. lasterketa jokatu zen, Aragoiko MotorLand zirkuituan. Moto 2 mailan Targobank Motorsport taldeko Alex Mariñelarena irurtzundarrak lidergoa defendatzen zuen, Montmelón jokaturako lehen lasterketa irabazi eta gero. Baina irurtzundarrak arazoak izan ditu eta ezin izan dio lidergoari eutsi. Hori bai, podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen.

"Asteburu konplikatua izan da. Entrenamendu ofizialetan erori nintzen eta lehendabiziko lasterketan zorte txarra izan dut, arazo mekaniko bat izan dugulako eta ondorioz, lurrera joan naizelako. Pena izan da, lehen lasterketan ezin izan baitut puntuatu. Eta bigarren lasterketan, irteeran, okerra-



Mariñelarena podiumean.

go ibili naiz. Seigarren eta zazpigarren postuetan egon naiz, eta taldea luzatu denean 5. postuan koka-

www.equipotargobank.es

Alex Mariñelaren taldearen web gunea, informazio guztiarekin.

tu ahal izan naiz. Azkeneko itzulian hirugarren postura igotzea lortu dut, eta podiumera igotzea. Ea hurrengo lasterketan garaipenagatik borrokatzea lortzen dugun" adierazi du Alex Mariñelarenak. Irurtzundarra Jesko Raffin (Ponsracing) eta Roman Ramos (Team Stratos) pilotuen atzetik sailkatu zen bigarren lasterketan.

Espainiako Abiadura Txapelketako sailkapen orokorrean Roman Ramos da lider berria (65 puntu), Alex Mariñelarenaren aurretik (41 puntu). Oraindik 6 proba falta dira txapelketa despeditzeko. Hurrengo lasterketa ekainaren 23an jokatuko da, Albaceteko zirkuituan.

Frontenisa

Sakanako Emakumeen VI. Frontenis Txapelketa

7. jardunaldia

Etxarri Aranatzen, ostiralean

1. maila

20:00etan: Mireia-Elena / Edurne-Vanesa

20:30ean: Ruth-Yolanda / Veronika-Maite

2. maila

21:00etan: Amaur-Irati / Ane-Uxue

21:30ean: Uxue-Irati / Andrea-Izar

Olaztin, larunbatean

2. maila

15:30ean: Marta-Maite / Maider-Leonor

16:00etan: Maria-Maider / Jone-Uxue

Atsedean: Izaskun-Mirentxu

1. maila

16:30ean: Kristina-Maialen / Yanira-Maite

Atsedean: Ainhoa-Txaro

Squash

Juanan Moreno Arbizuko V. Squash Ligako txapeldun

16 partaide izan ditu azaroan hasi eta maiatzean despeditu den Arbizuko Kiroldegiko V. Squash Ligak. Txapelketa polita eta lehiatuaren ondoren maiatzaren 15ean jokatu ziren finalak. Finalera Juanan eta Migel Javier Moreno anaiak heldu ziren, eta lehia estu baten ondoren garaipena anai zaharrenak lortu zuen, Juananek 3. eta 4. postua erabakitzeke lehian, Aitor Satrustegi arruazuarra Carlos Mañeru etxarriarrari gailendu zitzaion.



Lau finalistak: Juanan eta Migel Javier Moreno, Aitor Satrustegi eta Carlos Mañeru. UTZITAKOIA

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

xapatero
taberna
948 460 162
Etxarri-Aranatz

NEREA
ILEAPAINDEGIA
NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero
Pasaiako
amuko txipiroiak
948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • **ALTSASU**

FRONTOIKO
TABERNA
Plater konbinatuak
Bazkariak eta afariak
enkarguz
948 469 138
ERKUDEN 4 • ALTSASU

MUSIKA

JUANPA AGIRRE PARIS 365 BANDAN:
Juanpa Agirre etxarriarrak Paris 365 ban-
darekin kontzertua eskainiko du izen be-

reko jantoki sozialak larunbatean antola-
tutako III. Jai Solidarioan, Iruñeko Autobus
Geltoki zaharrean. Egun osoko festa da.

Etxarriarrak kontentu **Dantzakia**ren harmonizazioarekin



Haize Berriak Bandak igandean Etxarriko doinuaren moldaketa mustu zuen. Aurretik Rafael Goñik dantzari buruzko hainbat argibide eman zituen. Adituak aipatuz, Erdi Aroko doinuak direla azaldu zuen. “Errenazimendugaraian indarra hartu zuen eta dantzatzea ohore bat zen. Adibide gisa esan, alkateak, apaizak eta etxalde oneneko mutilek dantzatzetzen zuten”. Gaur egundantzatzeten diren aipagarrienak halakoak direla azaldu zuen Goñik.

Etxarriko Dantzakiari buruzko lehen aipamen idatzia, sute baten harira, 1530ekoa dela azaldu zuen Goñik. 1650ko agorrrilaren

15eko beste datu bat ere bada, Andra Mari ermitan, arratsaldean, dantzatu zena.

Dantzakiak lau zati ditu, baina “XVIII. eta XIX. mendeetan Euskal Herrian indar handiz sortzen da Zortzikoa eta, ondorioz, Dantzakiari erritmo berri hori erantzen zaio, bi zatitan”. Gaur egungo etxarriarrek ez dute Zortzikoa dantzatzeten ezagutu, “baina Dantzakiaren partitura hor daukagu”. Erritmo berezi horretan gaur egun Urdiainen bakarrik dantzatzeten dela azaldu zuen Goñik. Bandarako Alberto Gonzalez Urrozek prestatutako harmonizazioan bi tenpo ezberdinak mantentzen dira.



Folk zeltaren fusioa

Igandean, 19:00etan Etxarriko plazan

Musika Plazan zikloaren barruan, etzi Iparfolk talde iruindarra izanen da Etxarri Arantzen. Folk musika egiten du taldeak, letra aldarrikatzaileekin, zelteneraginarekin eta haien joera eta sustraiak nahasiz. Disko berria prest, folk tradizioaletik urrunduta egin da Iparfolk fusiorantz joz.

Cultur programak Altsasun geldialdia eginen du

Nafarroako Gobernuak udarako antolatu duen kultur eskaintzaren zati da Cultur programa. Agorriean garatuko da programa hori eta musikan oinarrituko da. 34 ikuskizun iragarri ditu Nafarroako Gobernuak eta haietako bat Altsasun izanen da. Agorrrilaren 27an, asteartean, 21:00etan Zumalakarregi plazan, Korrontzi taldea ariko da. Tikitixa oinarri euskal doinuak berri eta eguneratzen ditu Korrontzik. Altsasura Oinkari dantza taldearekin batera etorriko da *Infernuko hauspoa* ikuskizuna eskaintzera. Euskal folk musika eta dantzen fusioa, koreografia garaikideen ukituarekin.

Lakuntzan parkeak babes handia

Lakuntzako Parkea Martxan taldeak larunbatean antolatutako jaialdia jarraipen handia izan zuen. Arratsaldean haurrendako puzgarriak, bandurrien taldearen emanaldia, haurren kantuak, Alkora taldearekin Afrikako doinuak eta beste izan ziren, eta gauean Los del Rayo eta La banda del jefe Bigun taldeen kontzertuak.

Antolatzaileendako egunaren balorazioa “oso positiboa da. Arratsaldean jende asko ibili zen eta ez hainbeste gauean, hotzarengatik, baina oso giro polita izan da eta kontentut gaude, 3.000 euro pasatxo sartu genituelako bankuan, eta gastuak kenduta 2.500 euro pasatxo izangoditugulako”. Dirua ateratzeko lakuntzarrek egindako brotxe-

ak jarri zituzten salgai, arrakasta handia izan zutenak, Kalek zuzenean margotuz zuten Bob Marleyren koadroa zozketatzeko boletoak saldu ziren eta txokolate beroa eta tarta pusketa erosteko aukera izan zen.

Parkea Martxan-ek ekainaren 6an “haurtzaroren kultura” lelopean gurasoendako hitzaldia antolatu du eta ekainaren 15ean Parkearen eguna. Buruhandiak eta erraldoiak, Irrien Lagunekin talo tailerra eta haurren ikuskizunak izanen dira.



Kale, kontzertuetan margotzen.

Eskerrik aska!



Aitzkozar krosa



bazterretik

Ibai Hernaiz Ormaetxea

Ur azpian

Hala da bai, etengabeko euriei esker ur azpian bizitzen ohitzen ari garela dirudi. Nikustedut bran-kiak eta dena garatzen ari naitzela ur azpian arnas egin ahal izateko, arrainen antzera. Bromakaldebatera utzita, bran-kiak garatu beharko dituztenak Zangoza aldeko biztanleak direla dirudi. Azkeneko hilabeteetan asko entzuten ari gara Esa-ko urtegiaren inguruko gatazkak sorturiko berriak. Honako hau nire iritzia pertsonala da. Ez naiz teknikaria ezta geologian jakituna, baina erdaraz esaten den bezala: a los hechos me remito. Esa-ko herrian badira oraindik beraien etxera joateko aukerarik ez duten familiak, eta dena, urtegiaren handitzearen ondorioz lur eremua mugitu egin delako eta etxe horiek ez omen daudelako leku seguruan. Azkenen urteetan, Esa-ko urtegiaren inguruan lurrak mugitu egin dira. Oso famatuak izan ziren Zangozako mutiko batzuk ateratako argazkiak: urtegiaren inguruko zuloetako batean sartu ziren, beraien buruak soilik agerian zudela, zuloen sakontasuna agerian utziz. Gobernutik kritika zorrotzak jasan zituzten, argazki horiek ez omen baitziren "benetakoak". Eta azkenekoa, joan zen astean iragarritako ikerketa geologikoa izan da, non teknikari batek alar-magorrian jartzen duen urtegiaren egoera. Eta bestalde, Gobernuak eta CHE-k (Confederación Hidrográfica del Ebro) teknikaria gezurretan dagoela deklaratu dute eta, bitartean, Zangozako jendea zer egin jakin gabe, beldurra gorputzean dutelarik. Nik egia esan, ez dut inolako konfiantzarik politikoengan. Beraien portaerak betierakutsi digute lehen-tasunak dituztela arazo ekonomiko eta politikoetan. Esperantza bat badut: kasu honetan beraien arrazoiak izatea. Bestela ondorioak oso latzak izan daitezke, eta lagun handiak ditut Zangozan. Ez nuke ezer txarrik gertatzerik nahi.

Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketako izen ematea zabalik



Seigarren aldiz Olatzagutiko Udalak pintura azkarreko txapelketa antolatu du. Garagarrilaren 16an jokatu da. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek dagoeneko izena emateko aukera dute eta antolakuntzak hala egitea eskertuko du, nahiz eta gazte eta helduen mailetan egunean bertan izena emateko aukera ere bada. Haurren mailako parte-hartzaileek garagarrilaren 12ra arte dute izena emateko epea. Horretarako udaletxetik bulego ordutegian pasa beharko da. Bestela, kultura@olazti.com e-postara bidali daiteke mezua, lehiaketan izena emateko dela aipatuz.

Satrustegiren herri literaturari buruzko ekarpenak Euskaltzaindiaren web orrian

Euskaltzaindiak bere web gunean atal berri bat zabalduko du gaur, Herri Literatura Jardunaldi-tako Antologia izena duena. Horrela, Euskaltzaindiako Herri Literatura batzordeak antolatu dituen herri-literaturari buruzko jardunaldietako ekarpenak mamitsuenak denon eskura jarriko dira sarean. 1989an hasi eta 2005era bitartean akademiak halako jardunaldiak antolatu ditu. Makina bat egile hainbat gai jorratu zituzten, horien artean Jose Maria Satrustegi. Bere lan horiek ere Interneten kontsultagai izanen dira gaurtik.

Dantza asteburua Lakuntzan

Bihar Elai Alai bere eguna ospatuko du eta etzi Alkate Dantza dantzatuko da, Korpus egunarekin

Maiatza akabera edo garagartzaro hasiera aldera, urtero, Elai Alai dantza taldeak bere eguna ospatzen du. "Ikasturte akabera bezala da, ongi pasatzeko egun bat" dela azaldu digu Hodei Flores dantza irakasleak Beleixe Irratian (FM 107,3). Berarekin batera Olaia Martiarena eta Garazi Garin aritzen dira egiteko horretan Elai Alain.

Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko 50 bat dantzari osatzen dute Elai Alai. 5 eta 27 urte bitarteko dantzariak, adin tarteka talde ezberdinetan bilduta. Handiena ez beste guztiak txikien taldeak dira. Floresek azaldu digunez, mutiko eta mutil faltan daude Elai Alain eta taldean parte hartzea animatu dituzte.

Elai Alai eguna

Ekitaldia 12:30ean hasiko da, taldearen kalejirarekin. "Normalean kalejira berdina egiten da. Baina aurten aldatu egin dugu, Lakuntza ere hazi baita. Beti alde batera joaten gara eta orain beste alde-rantz, Arruazurantz, joan gara" argitu du Floresek. Bidean hiru geldialdi egingen dituzte, dantza saio motzak, jendea plazara erakartzeko asmoz.

13:00ak pasatxo direnean plazan ekitaldi txiki bat egingen dute.



Lauzpabost dantza emanen dituzte. "Beti taldeko denok batera dantzatzu bukatzen dugu. Ikasturtean talde guztiak dantza berri bat ikasten dute eta egun honekin erakusten dugu". Eguraldiak ez balu lagun-duko frontoira aldatuko litzateke saioa.

Taldea

Bazkaltzera eta ongi pasatzera bilduko dira guztiak. "Denok batera gauden ekitaldirik ez daukagu. Saansastinetan txikiak dantzatzu dute eta agorrilekoetan guk, helduok. Horregatik sortu genuen Elai Alai eguna, denok batera egoteko", horrela azaldu digu Floresek biharko egunaren garrantzia.

Ondoren Arbizuko, Etxarriko eta Bakaikuko festetan ere ariko dira. Elai Alai Iruñeko Folklore egunean parte hartu zuen. Sortzen diren irteeretan aritzen dira. Flo-

Alkate dantza

Korpus eguna da igandean eta, 19:00etan, plazan da hitzordua. Elai Alai koek irakatsi badite ere, kintoek eta kinto gazteek dantzatzu dute. "Urte asko dituen dantza da eta alkateari eta udalari dantzatzu zaio. Herri guztietan dagoen zortzikoa edo dantzakiaren modukoa litzateke", azaldu du Floresek, ahaztu gabe Lakuntzan beste dantza bat ere badutela: Lakuntzako Pertzako dantza. Gazteen saioaren ondoren, 19:30etik 22:00etara Iñakik dantzaldirako doinuak jarriko ditu eta auzatea izanen da.

resek aitortu duenez, "nahiko gure keena baino gutxiago ateratzen gara. Ez dago diru asko, autobusa alokatzeko eta beste".

Altsasutik Bertso Eskolen Egunerera

Bertso Eskoletan dabilzan 14 urte arteko Nafarroako gaztetxoak maiatzaren 11n Donezteben bildu ziren, Nafarroako Bertso Eskolen Egunean. Doneztebeko zineman 80 gazte bildu ziren, eta haien artean zeuden altsasuarrak. Bertsoaren inguruan elkar ezagutzeko eta ikasturteari amaiera emateko festa izan zen larunbatekoa. Altsasuko Bertso eskolan, asteartero, 12 eta 14 urte bitarteko 7 gaztetxo biltzen dira, Josema Leitza irakasle dutela.



Bestalde, urtero moduan Euskal Herriko Bertsozale Elkartek bertso-udalekuen 16. edizioa antolatu du. Udako oporraldia lagun giroan pasatzeaz gain, bertsoak lantzeko

aukera eskaintzen du elkarteak. Zortxi txandatan 300 haur eta gazte parte hartuko dute. Haietako 35 (12 eta 14 irte artekoak) Irañetan izanen dira garilaren 21etik 27ra.

ITZIAR NAZABAL
ARTE ESKOLAKO ERAKUSKETA
Maiatzak 28 - Ekainak 16

1001a KULTURAREN ZENTROA
Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800 - Altsasu - 948564272 - iortia@altsasu.net - www.facebook.com/iortia

GARI
EKAINAK 8
20:00

zure zitzada behar dugu
Sareak salgai: leihotia - barrobarrak.eu

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 94%	euria: 78%	euria: 33%	euria: 18%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 15%
Min: 7 Max: 10	Min: 8 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 7 Max: 14	Min: 6 Max: 16	Min: 6 Max: 20	Min: 8 Max: 19

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	20.6	-1.1	38.3
Altsasu	20	0	22.8
Aralar	13.5	-0.9	34.8
Urbasa	14	-1	47.3

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
31	8	16	23

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Mendian gora, mendian behera, jo bide zuzenera!

10. LAKUNTZA ARALAR

MENDI LASTERKETA

EKAINAK 9 JUNIO 2013

948 564 275 argi@guaixe.net

http://guaixekomunikazioa.blogspot.com.es/

Guaixe KOMUNIKAZIOA

diseñua impresioa

>> 11

galdera

Iker Zabaleta

Kabileñas enpresaren sortzailea

Testua: Maider Betelu Ganboa

1. **Kabileñas izeneko enpresa sortu duzu, Urdiainen.**
Emaztea Valentziakoa da. Gurasoen lurraz zirenak gureak dira orain eta bere familiako lehengusu batek mantentzen ditu. Laranja eta mandarinak ditugu, hainbat barietate. Asteburuan Valentziara jaisten naiz, bertan etxea dugu, eta astehenean fruta ekartzen dut, eta astean barna banatu egiten dut. 7 hilabete daramatzagu negozioarekin.
2. **Enpresa sortu baino lehen zertan zenbiltzan?**
Sunsundeguin nengoen. Bi herria ditut, bajaran egona nintzen eta lan hori ez zen ona niretako, eta enpresaren egoera ere ez. Iazko kanporaketak egon zirenean, ni boluntario aurkeztu nintzen. Frutak saltzearena aurretik planteatuta genuen eta animatu ginen.
3. **Lehen zer egiten zenuten Valentziako lurrekin?**
Lurrak kooperatibak eramaten zizkigun, baina azkenaldian sekulako krisia izan da sektorean eta guri irabaziak sortu beharrean galerak sortu zizkigun. Eta mantenuak eta beste kostu handia du. Zerbait egin behar genuela argi genuen. Cederna-Garalurrera joan ginen papera guztiekin, ikerketa bat egin zuten, gauzak ongi ikusi zituzten eta aurrera egitera animatu gintuzten. Ez dugu oraindik urte bat bete eta hemen gaude.
4. **Nola ezagutarazi dituzu zure laranja eta mandarinak?**
Hasiara batean maioristetara joan nintzen, aurkeztera. Iraila bukatu eta produktuekin joan nintzen, eurek dasta zezaten. Eta hola. Badira herriak bertako den-



Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

datan gure fruitua salgai dutenak, eta herri horietan ez diegu partikularrei saltzen. Dendek zerbitzatzen dute. Baina herri bateko komertzioetan ez badago gure produkturik, guri deituta partikularrei euren etxetara eramaten diegu produktua. Esaterako, Urdiainen, harategian uzten dut, Etxarrin eta Arbizun dendatan... Baina Altsasun ez dudanez dendatan zerbitzatzen, baditut partikularrak eta euren etxetara fruta uzten dut, eta Uharteko Arakilen, Irurtzunen... Orain ezagutarazten eta zabaltzen ari naiz. Ahoz ahokoak asko funtzionatzen du.

5. **Bertakoa izateak balio erantsia dauka zuri erosteko orduan?**
Noski, ezagunek erosten didate. Ni zumarragarra naiz. Beasainen, Ordizian, Zumarragan... bezero asko ditut. Gehienbat Sakanan eta Goierri. Iruñean ere ezagunak ditut eta han ere zerbitzatzen dut. Gasteizen ere... eta tarteka sortzen diren tokiak.

6. **Balorazioa nolakoa da?**
Primerakoa. Beldurra nuen hasieran, baina, orain, pozik nago eta bezeroei oso eskertuta.

7. **Zuen senitartekoak dira fruitarbolak lantzen dituztenak.**
Bai, eta oso ongi, konfiantza guztiarekin. Mantenua ordaintzen diegu. Beraiek ere etekina ateratzen dute. Eta gure produktua bukatuz gero, euren ere zerbitzatu dezake-

gu, produktu bera delako, toki bereko eta tratamendu berdina dituen. Gukez dugu fruituaren hotzedo tenperatura katea apurtzen: zuhaitzetatik zuzenean hona datoz.

8. **Etorkizunerako erronkarik?**
Ondoko lursail batera zabaltzeko aukera dugu, baina ongi aztertu behar dugu.

9. **Egungo krisi egoeraren aurrean alternatiba autoenplegua sortzea da?**
Nire kasua berezia da, guk lurrak eta produktuak genituelako eta hau haiek esplotatzeko modu bat delako. Baina gauzak dauden moduan egonda, nik uste dut, bidea hau dela. Gure egoeran daudenendako, hori da bidea: zure kabuz mugitu eta saldu. Bestela, kooperatibek, enpresa handiek edo bitartekariak irabaziko dute.

10. **Web orririk baduzue, internet bidez produktua saltzeko?**
Ez, baina planteatuta dugu zerbait egitea. Harremanetan jartzeko, deitzearekin nahiko (609 086 048).

11. **Kontentu?**
Bai, eta bezeroekin oso eskertuta, izan dudana harrerarengatik. Kampaina hiru bat astetan bukatuko da eta iraila bukatu berritara hasiko gara produktua eskaintzen. Tarte honetan zuzeneko kimatu, tratatu, udako aroa betetzeko beste barietate bat landatu dezakegun aztertu... badago zer egin.